

# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko martxoaren 5a / 664. zenbakia



**Martxoaren 8a**

Hainbat ekitaldi emakumeen eskubideak aldarrikatzeko

ETA GAINERA,  
**TELEBISTA**  
GEHIGARRIA

**Asteon**



"Irakera itzultzeko  
amurratzen nago"

ORAIN ETA HEMEN: IÑAKI BEREZIBARRI ELKARRIZKETA/6 • GAZTEAK: BEGIRALE IKASTAROA/15



LYON-REALA SAIO BEREZIA

# GOITB, debagoiendarrekin Lyonera!



**Ikusiko  
duzu!**

LYON-REALA / Babeslea:  
MUEBLES FERNANDEZ  
Gamarrako atea 21  
GASTEIZ

LYON-REALA  
Saio berezia

Egubakoitzean, martxoaren 12an,  
20:30ean

## KALEINKESTA/ Edurre, belaunetik behera ala gure beste?



**MARIBI DAVILA**  
Langillie

Edurre mendixetan bai baiñe kalien ez. Neu Erguñen bizi naz, eta kalera umiekin bajetako arazuek euki dittut. Lurre labankorra dau, eta karreteran ibiltteko peligosue da.



**ARITZ ELUSTONDO**  
Langillie

Edurre egin daixela, eta beldur barik, gainera; etxetik urten ezinka egon arte. Hola, lasai-lasai egoteko aukerie eukiko dogu. Gaiñera, lurrak asko eskerketan dau edurre egittie.



**VICENTE LETONA**  
Jubilaua

Zaharrok ez dogu edurrik gure, labandu eta hezurren bat apurketako be! Edurre egin daixela gure beste, baiñe mendixetan, eta ez kalien. Bestela kaliek labankorrek egoten die.



**DOLORES ZUBIA**  
Etxekoandrie

Neuri edurre asko gustetan jat, baiñe bi egunerako. Karreterak bilddurre emuten dust, edurre peligosue dalako. Hala eta be, ona da neguen edurre egittie; lurrak eskertu egitten dau.



**JAVIER SANDOVAL**  
Langillie


Kanpuen lan egitten dogu-nondako ez da komeni edur askorik egittie. Neuk Elgetan egitten dot lan, eta gaur ezin izen dot juen. Jai hartu dot, baiñe hori erreku-perau egin biherko dot.



**JUANI SALVATIERRA**  
Langillie

Neure jaioterrixen ez dau edurrik egitten; horregaittik gustetan jat horrenbeste edurre. Atzo bertan Udalan egon gitzen, edurretan jolasien. Egin daixela gure beste edur.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK BURDIN HESIA IPINIKO DUTE** Saiolango eraikinaren azpiko lokaletan ezezagun batzuek hainbat apurketa egin dituzte. Eta Saiolango erabiltzaileak haserre daude horrekin. Bada, orain dela gutxi, Udalak erabaki zuen atzeko aldean jartzea aurreko aldean dagoenaren moduko burdin hesia. Hesi hori gauzez itxi egingo dute, eta ezin izango da inor sartu inguru horretara.

## ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KIROLA /10

KULTURA /14

### Katxalin elkarte

Bularreko minbi-ziaren gaineko informazioa emango dute Emakume Txokoan.

### Ointxeko entrenatzailea

Ointxe Arrasate saskibaloit taldeko entrenatzaile Gorka Zurutuzari elkarrizketa egin diogu.

### Los Cretinos musika taldea

Los Cretinos musika taldeko kideei elkarrizketa egin diegu. Rock-and-rolla egiten dute.

## ASTEKODATUA

# 143

### LAGUNEK EMAN DUTE IZENA PEÑISCOLARA JOATEKO

Dagoeneko 143 lagunek eman dute izena Abaroa erretiratuen elkartearekin Peñiscolara joateko. Elkarteko arduradunek hiru autobus kontratatu dituzte, eta hirurak betetzea espero dute.

## BESTEKEESANA

**“ Arrasateko herriak oso ondo daki zer den sakabanaketa, astero-astero 23.374 kilometro egin behar**

**baitituagu, horrek dakarren gastu ekonomiko, errepideko arriskuari aurre eginez... Izan ere, Arrasatek dituen hemezortzi preso politikoetatik bat bera ere ez dagoelako Euskal Herrian, orain arte Martutenen zegoena, Kanto, Zuerara eraman dute, losu Arkauz ere, Salamancan egonik, orain Alacantera eraman dute. (...) Hitzetatik ekintzetara pasatzeko ordua da, nazkaturik gaude gure aurka erabiltzen duten mendeku eta politiko horretaz. Hauteskundeak direla-eta, azkenaldian politikariei, giza eskubide, errespetu... horrenbeste gustatzen zaizkien hitzekin ahoa betetzen zaie, baina ez dira gutaz ari”**

IRATI ARANZABAL  
‘GARA’/2004-02-26

## HERRITARRENBERBAK/ Aitor Zabalo



### Aldaketak

**A**zken egunotan aldaketa polita jasaten ari da Arrasate. Elurra etorri da eta dena zuri-zuri dago edo egon da. Aldaketa naturala eta niretzako polita ere. Kaosa ere sortzen du elurrak, errepideetan batik bat. Baina aldaketa denak bezala, alde onak eta txarrak dituzte.

Baina ez nuke aldaketa natural hauetaz hitz egin nahi. Azken aldirian gure inguruan gertatzen ari diren aldaketei buruz nahi dut nire hausnarketa txikia egin. Autopista, Biteriko aparkalekua, kolektorea, Takoloko tunela, frantziskotarren komentuan egongo den kultur etxea...

Arrasate beti ere aldatzen joan da: saihebidetaz egin dira (Epelekoa barne), aparkalekuak, etxeak eta abar. Baina orain dena batera egin nahi dutela ematen du. Eta horrek, alde onak eta ez hain onak ere ekarriko ditu.

Egia da nik autoa gutxitan erabiltzen dudala, eta hartu

dudanean konturatu naizela dauden arazoetaz. Adibide gisa gogoan dut behin Gargartzatik bueltan 30 minutu egin nituela (eguneroko bide hori egin behar duenarentzat kontatu dudana anekdota soila irudikatuko zaio). Erdialdean aparkatzea ere arazo handi bat

da, San Juan auzoko aparkalekuak beteta egoten dira arratsaldeko bostetatik iluntzeko zortziak arte. Errekak ere zikin daude.

Honekin adierazi nahi dut agian aldaketa denak edo gehienak beharrez-

ko izango direla, baina denak batera egitea agian estresante samarra izango dela. Ez dut imajinatu ere egin nahi Biteriko aparkalekuaren lanek eta Aramaio erreka gainean doan errepidea jasotzeko lanek elkartzean sortuko duten kaosa. Hala ere, pasako da. Baina pazientzia apur bat beharko da, Deba eta Aramaio erreken garbitasunaz berriz ere disfrutatzeke, aparkaleku gehiago egoteko...

**“Agian aldaketa gehienak beharrezkoak izango dira, baina denak batera egitea estresante samarra da”**

**Arrasate**  
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

ZUZENTZAILA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Natali Martínez  
Imanol Elortza  
Amaia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gáinzarain  
Ane Bereizbar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA  
SS-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 5**  
Azkoaga, Iturriotz 17 ..... 943 79 79 99
- ZAPATUA, 6**  
Corcuera, M. Aranbarri 1 ..... 943 79 22 26
- DOMEKA, 7**  
Irizar, Erguin 11 ..... 943 79 12 39
- ASTELEHENA, 8**  
Amezua, Santa Marina 32, ... 943 79 09 74
- MARTITZENA, 9**  
Español, Araba etorb. 14, .... 943 79 18 65
- EGUAZTENA, 10**  
Ruiz, Maala 31 ..... 943 79 14 09
- EGUENA, 11**  
Zabala, Zarugalde 42. .... 943 77 16 30
- EGUBAKOITZA, 12**  
Azkoaga, Ferrerías 1, ..... 943 79 15 15

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERITXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00  
Igualatorioa. .... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak ..... 943 79 39 00  
Emakumeak ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea ..... 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**  
SOS Delak ..... 112  
Gurutze Gorria. .... 943 76 55 76  
DYA ..... 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
Astelehenetik  
egubakoitzera ..... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan ..... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa
- Arrasate**  
Astelehenetik  
egubakoitzera ..... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan. .... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
  - Espzialitateak ..... 943 03 53 11
  - Ikuskatzailea. .... 943 03 52 52
  - Kanpoko kontsultak ..... 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak ..... 943 45 87 44
- ERTZAINZAK**  
Arrasate ..... 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua ..... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea ..... 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa erretiraturien egoitza ..... 943 79 81 57

- MONTERRON LIBURUTEGIA**  
Monterron. .... 943 77 01 05

**MEZAK**

- |  |  |
|--|--|
| <b>San Joan parrokia</b><br>Zapatua<br><b>19:00</b> (elebiduna)  | <b>San Andres eliza</b><br>Zapatua<br><b>19:00</b> (elebiduna)                                     |
| <b>Domeka</b><br><b>09:00</b> (gaztelaniaz)<br><b>11:00</b> meza nagusia (euskaraz)<br><b>12:30</b> (elebiduna)  | <b>Domeka</b><br><b>10:00</b> (elebiduna)<br><b>11:00</b> (euskaraz)<br><b>12:30</b> (gaztelaniaz) |
| <b>San Frantzisko eliza</b><br>Zapatua<br><b>19:00</b> (elebiduna)   | <b>Santa Teresa eliza</b><br>Zapatua<br><b>19:00</b> (elebiduna)                                   |
| <b>Domeka</b><br><b>09:00</b> (euskaraz)<br><b>10:00</b> (gaztelaniaz)<br><b>11:00</b> meza nagusia (euskaraz)<br><b>12:30</b> (gaztelaniaz)<br><b>19:00</b> (gaztelaniaz) | <b>Domeka</b><br><b>11:00</b> San Isidron (euskaraz)<br><b>12:00</b> (gaztelaniaz)                 |
| <b>Uribarri parrokia</b><br>Zapatua<br><b>19:00</b> (elebiduna)  | <b>Santa Marinako eliza</b><br>Jalegun bezpera eta zapatua<br><b>19:00</b> (gaztelaniaz)           |
| <b>Domeka</b><br><b>11:30</b> (euskaraz)<br><b>12:30</b> (gaztelaniaz)   | <b>Domeka</b><br><b>12:00</b> (gaztelaniaz)  |

**OHARRAK**

**MARTXOAREN 8KO EKITALDIAK**  
Bihar, zapatua, emakume baserritarren eta artisauen azoka egongo da Herriko Plazan. 12:00etan, kale antzerkia egongo da, eta 13:00etan, bertsolariak. Astelehenean, manifestazioa egingo dute, 19:00etan, eta 19:30ean, luntxa egongo da osoko bilkuren aretoan. Eguaztenean, martxoaren 10ean, emakumearen eta inmigratioaren gaineko berbaldia egingo dute, Emakume Txokoa.

**1940KO EMAKUMEAK**

1940an jaiotako emakumeek bilkura egingo dute martxoaren 27an. Meza izango dute San Juan Bautista elizan, eta 14:30ean, bazkaria izango dute Musakola Hostalean. Interesatuek izena eman behar dute Hiren edo Begoña lurrindegian martxoaren 20a baino lehen, eta 15 euro ordaindu behar dituzte.

**ARALAR-ZUTIK**

Martitzenerako, hilak 9, Aralar-Zutik taldeak prentsaurrekoa antolatu du Jai Zalen, Atzerritartasun Legearen gainean, 11:30ean. Martitzenean, taldearen aurkezpena egingo dute Monterronen, 19:00etan. Pilar Etxanizek, Xabier Sarasuak eta Richard Irazustak esku hartuko dute.

**AEDrenAGENDA**

**ARRASATE LEHIAKETAK**  
AED elkarteak urtero antolatzen ditu Arrasate Lehiaketak. Iazko irabazle-en lanekin osatutako liburuxka eskuragarri dago AEDn. Gura duenak jo dezala bertara hartzera.

**'BERRIA'-REN AKZIOAK**

Berria egunkariaren akzioak salgai daude AEDn. Jo AEDra bulego orduetan, goizez edo arratsaldez.

**URBANOENORDUTEGIA**

- Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibal, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Bake Epaitegia zabaldu gura zuten**

Arrasateko Bake Epaitegia lekuz aldatu zuten, Ignazio Zuloaga kalera, hain zuten ere. Egoitza horren egokitze lanek 15,5 milioi pezetako kostua izan zuten. Egoitza egokitzearekin batera, Udalak bake epaile berria aukeratzeko prozedura hasi zuen, eta horretarako lagun bila hasi zen.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Gonaiza"*



Guraizak, artaziak.

GORKA ORTEGA

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Mikel Etxaberi elkarrizketa**

Xerez taldean jokatu du Mikel Etxabe futbolari aretxabaletarrak, eta kobratzen ez dutela eta, *Interviú* aldizkarian agertu dira Xerezko futbolariak. Biluzik baina pankarta bat dutela agertu dira. Mikelekin egin dugu berba ekintza berezi horren gainean. Bestalde, Juan Luis Lasa arrasatearra ere izan da gurean, Brasilen bizi izan dituen Aratusteak zelakoak izan diren kontatzen. Elkarrizketa biak zapatuan eta domekan errepikatuko ditugu.



**Astelehenean emakumeak nagusi**

Martxoaren 8an, astelehenean, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, herriko irratiaren egun horri tarte berezia eskainiko diogu. Bestalde, Elkarriko kideekin ere izango gara, zapatuko sinadura batzaren balantzea egiteko. Martitzeneko *Iluntzean* saioan, berriz, Roberto Moso ezagutzeko aukera izango da. Roberto Zarama taldeko abeslari izan zen, eta irrati esatari ere ibilitakoa da. 19:15ean eskainiko dizuegu solasaldia.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Astelehena, 1	<b>-1 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Martitzena, 2	<b>9 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>111 L</b>
	Max. Min. Euria
<b>Eguaztena, 25</b>	5 °C 2 °C 2,5 l/m²
<b>Eguena, 26</b>	5 °C 2 °C 11,8 l/m²
<b>Egubakoitza, 27</b>	4 °C -1 °C 48,9 l/m²
<b>Zapatua, 28</b>	3 °C 1 °C 34,3 l/m²
<b>Domeka, 29</b>	6 °C 0 °C 12,8 l/m²
<b>Astelehena, 1</b>	4 °C -1 °C 0,8 l/m²
<b>Martitzena, 2</b>	9 °C 0 °C - l/m²

Beragarro San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- EGUBAKOITZA**  
19:10 Planning Prest
- ZAPATUA**  
10:00 Asteko albisteak.  
10:15 Asteko elkarrizketak: Juan Luis Lasa; Mikel Etxabe futbolaria; Edorta Agirre gastronomia aditua...
- DOMEKA**  
10:00 Asteko albisteak.  
10:15 Asteko elkarrizketak
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 Albistegia  
10:00 Euskadi Irratiko albistegia  
10:06 Igo Autobusera magazina: ezmerideak, elkarrizketak, kirolak...  
11:00 Euskadi Irratiko albistegia  
11:06 Igo autobusera magazina  
11:30 Arrasate Irratiko albistegia  
11:40 Igo autobusera magazina  
12:00 Euskadi Irratiko albistegia  
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia  
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.  
17:00 Izarren ordua.  
19:00-21:00-23:00 Albistegi laboratu
- MARTITZENA**  
19:10 Iluntzean: Roberto Moso
- EGUENA**  
19:10 Noraezean

## ASTEABIHITZETAN

### Energia garbi eta ekologikoa

Ecotecnia eta Fagor Etxetresna Elektrikoak Kooperatibek —MCCKo kideak biak— Ekisun elkarteak sortzeko akordioa sinatu dute. Elkarte horrek eguzki sistema fotovoltaikoen jarduera garatzea du helburu.

Merkaturatuko dituzten sistemak teilatu, terraza, lorategi, eta abarretan instalatzeko izango dira, eta sare elektrikoari konektatzeko prestatuta daude. Instalazio horiek energia garbi eta ekologikoa sortzen laguntzea dute helburu, eta baita sistema horien jabe egiten direnek errentagarritasun handia lortzea ere.

### Unibertsitate txapelketak

Mondragon Unibertsitateak Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateen arteko txapelketan parte hartuko du. Aurretik, baina, txapelketa horretan MU ordezkatzeko duten kirolariak hautatu behar dituzte. Horretarako, fakultateen arteko txapelketak egin dituzte astean zehar.

Aurtengo txapelketa antolatzea Deustuko Unibertsitateari egokitu zaio. Deustukoez gain, EHUko ikasleek eta MUko ikasleek hartuko dute esku txapelketan. Faborittoa, urtero moduan, Euskal Herriko Unibertsitatea da.

### Supermerkatuetan hutsuneak

Azken egunotan eguraldia normaltasunera itzuli da, eta eguraldiarekin batera baita eguneroko martxa ere. Hala ere, egindako elurrak eragin handia izan du. Supermerkatuek, adibidez, gura baino gehiago igarri dute elurrak eguneroko lanean izan duen eragina.

Kontua da astelehenera arte kamioiak Irunen, mugan, geldi egon zirela. Ondorioz, Arrasateko hainbat supermerkatutan apal asko hutsik egon ziren. Hutsune nabarmena produktu freskoetan igarri da; frutan eta arrainetan, esaterako.



### Zazpi mila sarrera urtarrilean eta otsailean

Joan den urtarrilean eta otsailean zazpi mila sarrera baino gehiago saldu zituzten Amaia antzokian filmak ikusteko. Urtarrilean ia hiru mila lagun joan ziren Amaiara, eta otsailean kopuru horrek nabarmen egin zuen gora, lau mila lagun pasatxo joan ziren-eta. Ez dira zenbaki makalak.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

## Zurigunearen alde iluna

**D**agoeneko, elurra joan da kaleetatik. Gehiago berotzen ez badu behintzat oraindik mendian aurkitu ahal izango dugu. Gura duenak han izango du.

Egunotan hala iragarri ziguten zurigunea heldu zen eta bizpahiru egunetan komunikabideen eta gizabakoen arreta ia osoa jaso zuen. Gure inguruan ez zen arazo askorik egon. Errepi-

dean kontu handiagoz ibili behar, zenbait auzoetatik jaisteko arazoak, baina ezer larririk ez.

Gasteiz eta Burgos artean, ordea, egon da nahiko iskanbila eta lotsa gutxi. Kontua da asteburuan A-1 autobidean ehunka auto trabatuta gelditu zirela, elurraren erruz, eta horietako askok 13 ordu ez atzera eta ez aurrera egin ezinean

egon ziren. Hori horrela egon arren, autobidera sartu gura zutenei, ezer ez zekitenei, ez zieten ohartarazi. Ordu mordoan trabatuta egon behar izan zuten gidariek ez zuten inolako laguntzarik jaso, autopistako arduradunengandik. Eskerrak Pancorbo-ko biztanleek laguntza eskaini zietela.

Hainbat ordu igaro eta gero, autobidetik irteteko aukera izan zutenean, autobideko enpresak bidesaria ordaindu arazi zien.

## ASTEKOIRUDIA



XABI URZELAI

### ASPALDIKO PARTEZ, ELURRA IZAN DA PROTAGONISTA: ELURRAK BEREGANATU DU ARRETA

Azkenean, hainbat alditan entzundako iragarpenak bete egin ziren, eta asteburuan elurra gogoz egin zuen. Aspaldiko partez, elurrak zuritu egin zituen autoak eta teilatuak, eta hainbat lagun ezin izan ziren auzoetatik jaitsi. Horrez gain, beste asko eskiatzera igo ziren Udalara, eta ume eta gaztetxo

mordoa plastikoekin maldan behera irristatzen ikusi genituen. Postal polita asteburukoa! Behin asteburua pasa eta gero, astelehenera ere elurrak egunerokoa baldintzatu zuen. Herriko ikastetxeek ezin izan zituzten eskola guztiak eman, eta elurra izoztear zegoen. Noizbehinka egin dezala, ezta? /I.B.



**BASATI**  
**TABERNA**  
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK  
943 711768

arbolapeta



arrasate  
**beinke**



KONTRATAK  
**IRVROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

## ELKARRIZKETA

IÑAKI BEREZIBAR/IDAZLEA

# “Ez litzateke bidezkoa izango sasoioko egoera kontuan hartu barik balorazio moralak egitea”

ARRASATE IRRATIA / UBANE MADERA

**V**iatoristen gaineko liburua idatzi du Iñaki Berezibarrek. Eskoriatzan bizi da, Gasteizen lan egiten du, eta zapatuetan Arrasatera etorzen da. Baina umetan Arrasaten bizi izan zen, eta, jakina, ikasi ere hemen ikasi zuen: viatoristetan. Haien gaineko liburua idatzi du: *Juventudes Viatorianas*.

**Orokorrean, zeren gainekoa da liburua?**

Izenburua bera da San Viatorren gaztetan abesten genuen himno baten hasiera. Kontatu nahi izan ditut alde batetik anekdotak, bitxikeriak, gertaerak... Umetan fraideetan gertatutakoak. Baina gero, horrekin batera kontatu nahi izan dut sasoi hartako hezkuntza-sistemaren kronika: zer-nolako testuak erabiltzen zituzten, zelako hezkuntza-mota sufritzen genuen...

**Zenbat urtez ikasi zenuen San Viatorren?**

3-4 urterekin-edo La Concepcion mojen eskolan sartu ginen eta 16 urterekin San Viatorrik irten. Hamabost bat urte ibili nintzen fraide eta moja artean.

**Hasieran, behintzat, badi-rudi ez dituzula oso oroitzapen onak...**


Txarrak ezta. Hor egiten dituzu lagunak, heltzen zoaz... Hori bai, fraideen gaineko oroitzapenak ez dira onak, eta hezkuntza-sistemarenak ezta ere.

**Zer dela-eta idatzi duzu liburu hau?**

Batetik, lagunekin-eta askotan ibiltzen gara anekdotak-eta gogora ekartzen. Baina, bestetik, urte askoan irakaskuntzarekin lotuta ibili naiz, eta azken bolada honetan dezente minduta gaude jasotzen dugun egurra dela-eta. Eta ez ditugu jasotzen egur judicialak bakarrik. Askotan esan izan dute gaur egungo ikastolek edo eskolek hezkuntza sistema arrazista edo klasista erabiltzen dutela, edo biolentzia bultzatzen duen sistema dela... Eta horrek ematen zidan amorrua. Izan ere, guri eskola eman ziguten irakasle batzuek oraindik ere eskolak ematen jarraitzen dute. Eta justu horiek eta ez beste batzuek gaur egungo hezkuntza sistema kritikatzeko, eta gaur egungo metodoak kritikatzeko... oso mingarria da. Eta horregatik hasi nintzen eurena apur bat jasotzen.

**Zer leporatzen diezu viatorristei?**

Ez da leporatze kontua. Baina kontatu nahi izan dut beste gauza askoren artean euskara zela tratatzen zuten, zela tratatzen zuten



*“Ez da liburu beltza. Anekdotak badira... eta ahalegindu naiz modu graziosoan kontatzen”*

Euskal Herria, Euskal Herriko historia, eta zela tratatzen gintuzten gu.

**Eta zela tratatzen zintuzten?**

Haurrok egun oso-osoa beldurtuta izaten gintuzten, jipoiak ematen zizkiguten; eta ez zaplastakoak, ez; umiliatzeko besteko jipoiak. Ikastetxe barruko erregimen moduko zerbait zen hura, ez zen irakasle bakarraren kontua; beldurrean oinarritutako erregimena zen.

**Eta liburu hau idatzita, jasandakoa kontatu nahi izan duzu?**

Ez hori bakarrik. Ez da liburu beltza. Anekdotak badira... eta

*“San Viatorren sartu ginenean euskaldun peto-petoak ginen; eta atera ginenerako erabat galdu genuen”*

ahalegindu naiz guztia modu graziosoan kontatzen. Adibidez, nire belaunaldiko guztiak ezagutzen dituzten *El Cimi* eta *El Guti*... eta halakoan anekdotak.

**Uste dut *El Cimi* eta *El Guti* eta irakasle horiek oraindik bizirik daudela. Jarri dira zurekin harremanetan?**

Batzuk bizirik daude; baina ez dira nirekin harremanetan jarri. Gainera, esan nahi dut liburuan ez dudala pertsona horien inolako balorazio moralik egiten. Ez litzateke batere bidezkoa izango 25 urte pasatu eta gero sasoioko egoera kontuan hartu barik balorazio moralak egitea. Liburuaren helburua ez da hori. Liburuaren hel-

*“Batzuek esaten didate gogorregia dela, mendeku gisa hartu dudala. Eta ez da halakorik”*

burua da anekdotak jaso, batetik; edozein gauza irakasteko erabiltzen zuten metodoaren berri eman eta zeintzuk gai erabiltzen zituzten, bestetik. Zela kontatzen zigiten erlijioa, edo Espainiako historia... Adibidez, euskararen kontuarekin, nire koadrilan, Arrasaten, gizezkoen kasuan 17 lagun gara, bat Salamancatik etorritakoa da eta besteak hemengoak; horietatik guztiak, bi izan ezik, euskaldunak ginen San Viatorren sartu ginenean. Ez genekien gaitelaz hitz egiten. Gure etxean euskaraz hitz egiten genuen, gure artean euskaraz hitz egiten genuen... Euskaldun peto-petoak ginen. Handik 15 urtera, San Via-

tortik irten ginenean, bi bakarrik ziren euskaldunak. Nik Gasteizen ikasi behar izan dut euskara, berreskuratzeko. Erabat galdu genuen. Nire koadrilan bere kasa ikasi ez duenak ez daki euskaraz.

**Debekatu egiten zizueten?**

Mojetan asko. Ahoa xaboiaz garbitu ere egiten ziguten. Fraideetan ez zen debekua. Lehen aipatu dudan erregimen horren zati zen. Euskara ez zen existitzen eta ezin zen erabili. Puntu.

**Bestalde, sasoi hartako hezkuntza-sistemaren gaineko kritika gogorrek egiten dituzu: matxista zela, atzerakoia, klasista, anti-euskalduna, faxista, indar fisikoa erabiltzen zuena...**

Banan-banan justifikatzeko astirik ez dut izango. Baina, adibidez, matxista zela erakusteko, testu-liburuetatik ateratako esalditxo bat irakurriko dizut: “El chico te quiere pura, fragante como una flor. A nadie le gusta comerse las sobras que otro dejó en el plato. Por eso la pureza es uno de los mayores tesoros de una muchacha. Un hombre como Dios manda se avergüenza de que su mujer haya sido una golfa”. Gizonen eta emakumeen arteko banaketa oso garbia zen testu guztietan. Faxista: Francoren koadroa eskolan geneukan. Atzerakoia: erlijioa nola tratatzen zuten ikustea nahikoa da ikusteko oso atzerakoia zela. Indar fisikoaren erabilera zen egunerokoa. Nire lagun batzuek ospitalean bukatu zuten puntuak hartzen, fraide astakirten baten jipoiak jaso ostean. Beste haur batzuk egon ziren erresistentzia berezietan, konbultsioak eta izaten zituztelako fraideekin egon eta gero. Begira, liburuaren agertzen diren guzti-guztiak jo egin naute. Hortaz, indarra erabiltzen zuten. Elitista zen, desberdin tratatzen zituztelako haur arruntak edo familia onekoak...

**Batzuk ados egongo dira zure liburuarekin, beste batzuk ez...**

Batzuek esaten didate gogorregia dela, mendeku gisa hartu dudala. Eta, benetan, ez dago halakorik. Gehienek beste modu batean hartu dute: kalean jendeak gertatu eta anekdota mordoak kontatu izan dizkit. Beste liburu bat idatzeko lain bai.

**Liburuaren aurkeztekotan zabilta Arrasaten...**

Bai, martxoan-edo izango da Monterronen.

**Eta orain, kontatu diezagun anekdotaren bat...**

Fraideen artean baziren bi edo hiru oso zaharrak. Gu haiek dezente txarto portatzen ginen, sotanan klerarekin idatzi, mahai-za zetorrean mahaiarekin tratu batu eragin jausteko... Halakoak.

M-14 / HAUTESKUNDEAK

# Alderdi gehienek oraingo astean hasi dute kanpaina



## PSE-EE: INDAR ESKUINDARRARI ALTERNATIBA

Elurrari aurre eginez, Arrasaten izan ziren egubakoitzean, hilak 27, PSE-EEko ordezkariak. Tartean, Kongresurako Gipuzkoako zerrendaburu Manuel Huertas. Azken horrek, besteak beste, PPren poli-

tika eskuindarra salatu zuen, esanez, ez duela inolako konponbiderik eskaintzen eta Euskadiko egoera erabili duela botoak lortzeko. Aurrerakoien eta ezkertiarren botoa eskatu zuen. /U.M.



## EA: AUTODETERMINAZIOAREN ETA DEMOKRAZIAREN DEFENTSAN

EAKo hautagaiak birritan izan dira Arrasaten boto eske. Joan den astean MCC eta Garaia bisitatu zituzten. Eta oraingo astean, Monterronen izan dira, hitzaldia egiten. Tartean, Begoña Errazti,

Begoña Lasagabaster eta Karlos Garaikoetxea izan ziren. Besteak beste, autodeterminazioa eta demokrazia defendatu zituzten eta PPrekin izan den atzerakada demokratikoa kritikatu zuten. /U.M.



## GAZTEAK BERGARAKO PROPOSAMENAREN ALDE

Gazteek jasaten duten egoera salatu zuten 30 gaztek baino gehiagok. Autodeterminazioaren alde egin zuten, esanez hori zela gazteek jasaten duten inposaketa eta zapalketa egoera konpontzeko bidea.

Euskal Herriaren aitortza eta errespetuaren bidez lortuko dela gazteen eskubideak errespetatzea eta aitortzea. Eta salatu zuten Ertzaintzak debekatu egin zirela prentsaurrekoa kalean egitea. /U.M.



## PP: PENSIOAK GORA ETA ZERGAK BEHERA

Kongresurako Gipuzkoako zerrendaburu Eugenio Azpiroz (PP) eguaztenean izan zen Arrasaten. Besteak beste, pensioak eta ogasun kontuak izan zituen hizpide. Azaldu zuen PPK zergak

gutxitu dituela eta pensioak handitu; eta autogobernua kaltegarri izango dela Euskadirendako. Debagoienari begira, berriz, PPK kooperatiben alde lanean segituko duela gaineratu zuen. /U.M.

## LABUR

### Gaur Ezker Batuak bere proposamena aurkeztuko du

Ezker Batuko ordezkariak gaur, egubakoitza, 18:00etan etorriko dira Arrasatera alderdiaren proposamena aurkezteko. Besteak beste, Kongresurako Gipuzkoako hautagai Patxi Coira eta Senaturako Gipuzkoako hautagai Beatriz Garcia etorriko dira.

### Gaur, manifestazioa eta bestelako ekitaldiak Arrasaten

Herriko zenbait gaztek mobilizazio eguna deitu dute gaurko, egubakoitza. "Inposaketa ostikatzea eta autodeterminazio eta gazteriaren eskubideen defentsa aldarrikatzea" da gazteen helburua. Hala, besteak beste, manifestazioak deitu dituzte gaur eguerdirako eta arratsalderako.

### Aralar-Zutik datorren martitzenean

Aralar-Zutik alderdiko ordezkariak datorren martitzenean, hilak 9, bisitatu dute Arrasate euren proposamen politikoaren berri emateko. Hala, goizean, 11:30ean, prentsaurrekoa izango da Jai Zale tabernan. Atzeritartasun Legea landuko dute Inigo Inurategik eta Mariasun Muxikak. Eta arratsaldean, 19:00etan, talde osoa aurkeztuko dute Monterron jauregian: Kongresurako Gipuzkoako zerrendaburu Xabier Sarasua; zerrendako bigarren Pilar Etxaniz eta Aibertaleen Batasuneko kide Richard Irazusta.

# Martxoaren 8a dela-eta, emakumeen eskubideen aldeko ekimenak

UBANE MADERA

Martxoaren 8a badatorrela-eta, Emakumeen Kontseiluak datozen egunotarako egitaraua antolatu du. Eguaztenean, hilak 3, prentsaurrekoa egin zuten, egitaraua aurkezteko; baita martxoaren 8ko aurtengo kartel irabazlea ere.

Hala, bihar, zapatua, hasiko dira martxoaren 8ko ekitaldiak. Goizean, emakume baserriar eta artisauen azoka izango da, Herriko Plazan. 24 postu ipiniko dituzte, gehienak herrikoak. Eta eguerdian, La Tirili antzerki taldeak *Miseria* kale-antzerkia eskainiko du. Horren ostean bertso-saioa

izango da. Andoni Egaña, Ainhoa Agirreazaldegia, Aitor Sarriegi eta Miren Artetxe bertsolariak jardungo dute, 13:00etan.

## ESKUBIDEAK ALDARRIKATZEKO

Gero, martxoaren 8an bertan, urtero moduan, emakumeen eskubideak aldarrikatzeko manifestazioa egingo dute, 19:00etan hasiko da, Seberren. Eta horren ostean, 19:30ean, luntxa egingo dute oso bilkuren aretoan.

Bestalde, bi egun geroago, martxoaren 10ean, *Emakumea eta inmigrazioa* izeneko hitzaldia egingo dute SOS Arrazakeriak eta Emakume Internazionalistek,

18:00etan, Emakume Txokoan. Eta bukatzeko, martxoaren 14an, domeka, Oihulari Klown-ek *Divinas* antzezlanaren egingo du Amaia Udal Antzokian.

## ESKUBIDEAK ZINTZILIK

Horrekin guztiarekin batera, lehen esandako moduan, aurtengo kartel lehiaketako irabazlea aurkeztu zuten: Edurne Elkoro, 20 urteko arrasatearra. 24 lanen artean aukeratu dute berarena. Egileak argitu zuenez, batzuek uste dute emakumeen eguna eta emakumeen eskubideak zintzilik daudela; hain zuzen ere, hori adierazi gura izan du bere kartelarekin.



Edurne Elkoro arrasatearra, aurtengo kartel lehiaketako irabazlea.

U.M.

## ELKARRIZKETA

ARANTZA ALONSO / FAMILIA UGARIKO AMA

## "Espainiak dauka Europako Batasuneko jaiotze-tasarik txikiena"

UBANE MADERA

O rain dela gutxi, Arantza Alonso arrasatearrak familia ugarien gaineko topaketetan parte hartu zuen Santiagon, Estatuko bestelako familia ugariekin batera. Gutxi dira, gaur egun, bi ume baino gehiago ekartzen dituztenak:

## Zenbatek parte hartu zuen?

1.800 bat lagunek, eta 400 bat umek. Familia Ugarien Espainiako Federazioak antolatu zuen ekimena. Baina bestelako erakundeek ere lagundu zuten.

## Zuk zeuk zenbat seme-alaba dituzu? Hori zelan egiten da?

Neuk 11. Sei neska eta bost mutil. Oso mentalizatuta egon behar da. Preferentziak edo pribilegioak ondo zehaztu behar dira eta soiltasuna ezarri zenbaitetan.

## Zein da topaketen helburua?

Leloa honakoa zen: *Familia ugarien ekarpena*. Familia ugariak gizarteari ematen dioguna aztertzea zen helburua: ekarpen sozialak eta ekonomikoak. Horrez gainera, *Plan Más Familia* ekimenaren berri ere eman ziguten: familia ugarietako abantaila sozial eta ekonomikoak eskaintzen dizkie. Era berean, jaiotze-tasa berbagai izan genuen. Izan ere, Espainiak dauka Europako Batasuneko jaiotze-tasarik txikiena (1,2 seme-alaba). Eta, gainera, pertsona nagusi asko. Ez dago belaunaldi-erleburik. Horrela jarraituz gero, 2050ean, munduko gizarterik zaharrena izango du Espainiak. Landutako bestelako artean, adibidez, beharrezkoak ditugun zenbait produktuk luxuzko zerga dutela eta halakoak aztertu ziren (pixoihaiek, auto handiek...). Zen-



ARANTZA ALONSO

bait datu ere eman zituzten: Europako estatuen artean, Espainia dela familian gutxien inbertitzen duena (%2,7). Europaren batez bestekoa %8,2 da. Adibidez, Alemanian bi seme-alaba dituen familia batek Espainian 11 dituen batek besteko dirulaguntzak ditu.

## Zein eskaera dituzue?

Familia ugariak babestea, batez ere, errentaren gaineko zergan. Lanean dabilzan emakumei erraztasunak ematea, bereziki, lan ordutegian eta amatasun bajaran. Eta ikus-entzunezkoen gaineko aholkularitza sortzea, umeak

babesteko telebistek eta ematen dituzten umeendako programa ez egokiengandik. Gainera, familia gizon eta emakume banaren arteko batuketa dela uste dugu, maitasunean oinarrituta; baina ez maitasun posesiboan, errespetuan baizik. Ezin da norberaren bikotekide dela eta nahi dena egin (jo...).

## Zein aholku emango zenieke bestelako familia ugarietara?

Gonbidatuko nituzke familia ugarien Hirukide elkartearen sartzan. Hobariak lortuko lituzkete. Elkarte apolitiko eta akonfesionala da: 902 44 03 03 / 945 25 36 02.

## Bularreko eta ginekologiako minbizi gaixoendako zerbitzua

U.M.

Eguaztenetik aurrera, hilak 3, bularreko eta ginekologiako minbizi duten emakumeen elkarteko ordezkariak Emakume Txokoan izango dira. Gaixotasunaren gaineko informazioa emango dute, besteak beste.

Bularreko minbiziaren gaineko informazioa edo aholkua edo beste edozer behar izanez gero, Donostiako Katxalin elkarteko ordezkariengana jo daiteke. Eguazteneko izango dira Arrasaten, Emakume Txokoan, 10:00etatik 12:00etara. Hala, oraingo eguaztenean, hilak 3, hasi dira zerbitzua eskaintzen. Katxalin elkarte kide eta gizarte laguntzaile Edurne Iruin etorri da Arrasatera.

## BEHARREN ARABERAKO ZERBITZUA

Hala, Edurne Iruinek esan digun moduan, hasierako helburua informazioa ematea eta beharra duenari harrera egitea izan arren, herritarrek dituzten eskaeren arabera zehaztuko dute Arrasateko zerbitzuaren jarduna: "Adibidez, taldeak laguntza psikologikoa behar badu, psikologo bat ekarriko dugu. Edo ikusten badugu taldeak gai zehatzen gaineko ikastaroren bat edo behar duela, bada, hori ere egingo dugu".

Emakume Txokoan eskainiko duten zerbitzua edozeini zuzenduta dago: "Gaixoari berari, gaixoarekin familiakoei edo gaixotasunaren gainean informazioa behar duen edozeini".

## MEDIKUNTZAREN OSAGARRI

Edurne Iruinek azaldu digu minbiziaren eta halako gaixotasu-

nen aurrean, askotan emakumeek *shock* modukoa jasaten dutela. Eta normalean, ohiko medikuek eta ez dutela horri aurre egiteko biderik eskaintzen. Hain zuzen ere, horixe da Katxalin elkartearen funtsa, beldur eta *shock* hori gaintzen laguntzea.

## IA 20 URTE LANEAN

Katxalin elkarte 1987az geroztik dabil lanean. Orain arte Donostian ibili da, baina orain, eskaintzen duen zerbitzua deszentralizatu egin gura du, eta herritarrei erraztasun handiagoak eman. Hala, Debagoienan, oraingoz Arrasaten eskainiko du zerbitzua, bai arrasatearrendako bai eta inguruko herrietarako jendearendako ere.

## KONTZIENTZIA HANDIAGOA

Bularreko eta ginekologiako minbiziaren gainean, berriz, Edurne Iruinek zera adierazi digu: "Orokorrean, gaixo kopurua altua da, baina gainerako erkidegoetako modukoa". Gaineratutakoaren arabera, jendeak gaiarekiko geroago eta kontzientzia handiagoa dauka, eta Osakidetzaren kanpainari esker, geroago eta lasterago atzematen dute gaixotasuna". Horren harira, adierazi zigun Osakidetzaren kanpaina 50-64 urteko emakumei zuzenduta dagoela; hau da, 50-64 urteko emakumei egiten dizkiete errebi-sioak, jarraipena eta. Hala, Katxalin elkartearen eskaeretakoa bat da adin-muga hori zabaltzea: "Adibidez, Nafarroan moduan, 45-70 urteko emakumei egiten beharko liekete. Izan ere, 40 urte inguruko gaixoak badira, kasu dezente, gainera. Eta baita 64 urte-tik gorakoak ere".

## LABUR

## San Andres parrokian hasi dira Garizuma sasoiko elizkizun bereziak egiten

Aratusteen ostean, Garizuma sasoiari sartu gara. Hala, San Andres parrokiak Garizumari dagokion meza-egitaraua prestatu du datuzen egunotarako. Horren arabera, egunero Eukaristia berezia izango dute, 19:00etan hasita. Gero, eguenetan, Bibliaren gaineko hitzaldiak entzuteko aukera izango da, 19:30ean. Egubakoitzean, berriz, Gurutze-bidea landuko dute, 18:30ean hasita. Eta zapatuetan, bakarkako aitortzak izango dira, 18:00etatik aurrera, eta Bezperak 18:30ean hasita. Bestalde, Garizumako bosgarren igandaren bezperan, martxoaren 27an, ekitaldi berezia antolatu dute San Andres elizan: Easo Abesbatzako gregoriar abeslariak kantatutako Eukaristia berezia izango da. 19:00etan hasiko da. Eta kantaldiaren ostean, kontzertu txiki bat eskainiko dute.

## Lan poltsa osatzeko eta zenbait lanpostu betetzeko dei egin dute Udalean

Udaltzaingoan hutsune bat ikusten dute aurrera begira. Izan ere, 2003ko eskaintza publikoaren barruan egin zen hautaketa prozesuan, udaltzainen hiru plaza bete barik gelditu ziren. Horrez gainera, Arrasateko udaltzainek hainbat ikastaro egin beharko dituzte prestakuntza eta gaitasuna hobetzeko. Hala, horregatik gutxienez tiagatik sortu diren hutsuneei aurre egiteko, Udalak lan poltsa bat sortuko du, eta, horren bitartez, bitarteko udaltzain berririk izendatuko dituzte. Bestalde, Monterrongo informatika-gelaren monitore berria behar da; praktika kontratua izango du.

## Euskal Herriaren naziotasunaren alde

Ezker abertzaleak deituta, zenbait arrasatear Herriko Plazan elkartu ziren joan den astelehenean, hilak 1. Ordu erdiz izan ziren han, besteak beste, "Espainiaren eta Frantziaren inposaketari ezetz esateko". Horrekin batera, Euskal Herriaren naziotasuna aldarrikatu zuten. Era berean, herriko presoen argazkiak aldean zeramatzatela parte hartu zuten zenbaitek kale agerraldian. Aurrera begira, antzerako ekimen gehiago izango direla iragarri zuten. /U.M.





ESPAINIAR ZEIN FRANTZIAR  
INPOSAKETARI



## BATZUK ELURRAZ GOZATZEN, ETA BESTE BATZUK LAN ETA LAN

Joan den asteburuan elurrez lepo azaldu ziren Arrasateko kale eta inguruak. Udalak, mendizeharko eskiekin harrapatu genituen hainbat lagun. Kirol horrek zale asko ditu, eta asteburuan ez zegoen Pirinioetara joan beharrik. Udalatik Udalatxera, eta handik Kanpanzar aldera. Horixe, askok aukeratu zuten ibilbidea. Asteburuan jo eta ke lanean ibili zenik ere bada; galdetu, bestela, kirol dendetan. Arrasateko kirol dendetan inoiz baino eskularru, mendiko bota eta polaina gehiago saldu zituzten. Negu-neguko giroa izan dugu, eta badirudi arrasatear asko ez zeudela giro horri aurre egiteko gertu.



## BIHAR AZOKA JARRIKO DUTE HERRIKO PLAZAN

Martxoaren 8ko ekitaldien barruan, herriko emakumeek azoka egingo dute bihar, zapatua. Joan den urtean Seber Altuben egin zuten azoka, baina aurten Herriko Plazan jarriko dute. Guztira, 24 saltoki egongo dira, euren produktuak saltzeko asmoarekin. Saltokietan artisaunen lanak eta baserriko produktuak egongo dira. Goizean hasi eta eguerdira arte egongo da azoka.

## LEHEN LAGUNTZAK NOLA EGIN IKASTEN

Lasai, goialdeko argazkian ez dabil inor itotzen. Konturatu ez denari esango diogu argazkian lurrean botata dagoena panpina dela. Izan ere, Elorregiko Gurutze Gorriak eta Arizmendi ikastolako lanbide heziketak lehen laguntzetako titulua eskuratzeko ikastaroa antolatuta dute, eta goikoa ikastaroko argazki bat da. Erizaintza laguntzaile eta Tafyd heziketa zikloko 23 ikasleek kurtsoan zehar jasotako ezagutzak Gurutze Gorriko arduradunen aurrean praktikan jarri zituzten. Gainera, prestakuntza hobetzeko asmoarekin, Tafydeko ikasleek uretako sorospen titulua eskuratzeko uretako probak egin zituzten.

ELKARRIZKETA

GORKA ZURUTUZA/OINTXE ARRASATE SASKIBALOI TALDEKO ENTRENATZAILEA

# "Giro polita dago taldean; hori da daramagun bolada onaren arrazoia"

XABIER URZELAI

**J**aitsiera faseko lehenengo itzuliko partidu guztiak irabazi ditu Ointxe Arrasatek, zortzi guztira. Bolada on horrekin lehenengo poztu dena taldeko entrenatzailea da: Gorka Zurutuza. Taldea oso maila ona dabil erakusten; horri esker, entrenatzaile onatiarrak lasaitu galanta hartu du.

**Jokalari izatetik entrenatzaile izatera. Eta, biak batera zergatik ez?**

Bietako bat ere ez nukeelako ondo egingo. (Barre). Orain dela hiru urte etorri nintzen Arrasatera, eta bi urtean jokalaria moduan ibili naiz. Denboraldi hasieran entrenatzaile barik geratu ginenean, eta ni hasi nintzen lan horretan.

**Eta, jokalaria ala entrenatzaile moduan hobeto?**

Entrenatzaile moduan oso gustura nabil. Saskibaloiaren jokatzea asko gustatzen zait, baina beti gustatu izan zait entrenatzaile lana, eta orain ez nuke aldatuko.

**Jaitsiera fasean, zortzi jokatu eta zortzi irabazi; ezinezkoa da hobeto ibiltzea.**

Bai, bolada ona daramagu. Ez genuen horrelakorik espero, gure helburua etxeko partiduak irabaztea zen-eta. Lehenengo fasean hiru partidu baino ez genituen irabazi, eta urtebete generaman etxetik kanpo irabazi barik. Orain, etxeko laurak irabazi ditugu, eta baita kanpoan jokatu ditugun beste laurak ere.

**Orain, bolada onari eusteke egin beharko duzue lan.**


Bai. Nik argi daukat lehena edo geroago galdu egingo dugula, beste zortzi partidu irabaztea oso gaitza delako. Hala ere, taldea animatuta dago, eta jokalariek irabazi baino ez dute gura. Bolada onaren zergatia hor dagoela esango nuke; taldean dagoen giro onean, hain zuzen.

**Bigarren itzulian zein kontrario izango da arriskutsuen?**

Oraingo aste bukaerako kontrarioa, adibidez, oso gogorra izango da. Nire ustez, Viajes Marfil da multzoko talde gogorrenetakoa, eta, gainera, euren kantuan jokatu behar dugu. Horrez gain, Kalagorri ere kontrario gogorra da. Errioxan irabaztea ez da bate-re erraza; gainera, kanpoan jokatzen dugunean epaileekin ez dugu zortzerik izaten.

**Oraingo aste bukaerako partidua zelakoa izango da?**

Viajes Marfilen kontrarioa norgehiagokoa ikusgarria izango da, seguru, bi taldeok defentsan baino erasoan hobeto ibiltzen gara-eta. Euren jokalariek onak dituzte;



XABIER URZELAI

*"Oraingo asteburuko kontrarioa da jaitsiera faseko aurkari gogorrena: Viajes Marfil taldea"*

gu, berriz, oso jokalaria gutxirekin joango gara. Edozelan ere, bolada onari eusten ahaleginduko gara.

**Etxetik kanpo jokatuko duzue aste bukaeran. Iturripen, igartzen duzue publikoaren berotasuna?**

Egia esatearren, Iturripen oso leku hotza da, eta beti esan izan dut gu ikustera etortzen den publikoak meritu handia daukala. Arrasateko jarratzaileez gain, inguruko herrietatik ere lagun asko etortzen dira, Bergarako, Oñatiko eta Aretxabaletako jokalariek ere baditugulako. Gasteizko Gasnalsa taldearen kontra jokatu genuenean, adibidez, oso giro polita izan zen Iturripen, eta taldeak asko eskertu zuten hori.

*"Iturripen hotz handia egiten du, baina partidu batzuetan oso giro ona egon da"*

**Goiz da galdetzeko, baina datorren denboraldirako ezer aurreratzerik bai?**

(Barre). Ez, nik gauza gutxi daukat aurreratzeko.

**Entrenatzaile lanetan jarrarituko duzun galdetu gura nuen.**

Nik ez daukat hori esaterik, taldeko zuzendaritzak erabaki beharko du hori. Nik esan dezakedan gauza bakarra da aurten oso gustura nabilela, eta ilusio handia daukadala. Hala ere, batek daki datorren urtean taldeak ze behar izango dituen. Akaso, jokalaria moduan ibili beharko naiz, batek daki. Argi dagoena da talde sendoa izateko hasiera-hasieratik egin beharko dugula lan.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

PARTIDUAK

- MARTXOAK 6, ZAPATUA. EPAILEAK**
- 10:50: Goma-2 - Saukelu Scream. Antola.
  - 12:00: You Know - Tomahawk. Antola.
  - 13:00: Iriztu Taberna. - Dream Team. Antola.
  - 15:50: Betrayer - Speed Boys. Antola.

MULTZOAK

- A MULTZOA**
1. Betrayer
  2. Etxerat
  3. Iriztu Taberna
  4. AC Surcos
  5. Aloña Taberna
  6. Dream Team
  7. Abokajarro
  8. Speed Boys

**B MULTZOA**

1. Dribling
2. You Know!
3. Lasagabaster
4. Saukelu Scream
5. Goma-2
6. Rayo Aldeano
7. Tomahawk
8. AT Celaya

**MARTXOAK 7, DOMEKA. EPAILEAK**

- 11:50: Lasagabaster - Rayo Aldeano. Antol.
- 13:00: AC Surcos - Aloña Taberna. Antol.

ZALDIBARKO PILOALEKUA ZURI-ZURI

BIGARRIN FASEKO LEHEN JARDUNALDIA ATZERATUTA

Joan den aste bukaeran jokatu behar zuten bigarren faseko lehenengo jardunaldia, baina egin zuen elurra zela-eta, partidu guztiak bertan behera geratu ziren. Arrasateko bazter guztiak bezala, Zaldibarko pilotalekua zuri-zuri zegoen zapatu goizean, eta ezinezkoa zen futbolearen egitea. Gainera, finala San Juanetan jokatzeke txapelketa luzatuguran ibiltzen dira askotan, eta elurrari esker aste bukaera bat atzeratzea lortu dute.

Hori bai, A multzokoek dagoeneko ahaztuta dute futbolearen jokatzea zer den, hainbat aste daramatzate-eta partidurik jokatu barik. Oraingo aste bukaeran hasiko dute bigarren fasea, eta joan den astean aipatu baguen ere, jakin, bigarren fasean arau berriak izango direla. Arau horiek atezainei eragingo diete gehien. Taldekideek pasea hantaz eginez gero ezin izango dute baloia eskuekin hartu, eta alboko saketan ere kontuz ibili beharko dute, area barrutik egindakoak ere ezingo dituzte-eta eskuekin hartu. Taldeek fase honetan erakutsiko dute zer egiteko gauza diren.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

**FUTBOLA**

- Elgoibar - Mondra**  
Preferente. Domekan. 16:30. Mintxetan.
- Añorga - Mondra**  
Ohor. Gazteak. Zapatuan. 16:30. Donostian.
- Arrasate - San Ignacio**  
Big. Gazteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.
- Touring - Arrasate**  
Ohor. Kadeteak. Zapatuan. 12:15. Errenterian.
- Arrasate B - San Ignacio C**  
Big. Kadeteak. Zapatuan. 09:45. Atxabalpen.
- Arrasate - Beasain**  
Infantilak. Zapatuan. 16:00. Atxabalpen.
- Salva Kirol Elkartea - Mondra**  
Neskak. Zapatuan. 16:30. Salvan.
- Arrasate - Aretxabaleta**  
Alebinak. Domekan. 11:15. Elgoibar (Mintxetan).
- SASKIBALOIA**
- Viajes Marfil - Ointxe Arrasate**  
Seniorrak. Zapatuan. 18:15. Iruñean.

**Arrasate - La Salle**

Juniorrak. Zapatuan. 16:00. Iturripen.

**ESKUBALDIA**

- BKL CAF - AGR Arrasate**  
Udaberri Txap. Domekan. 11:30. Antzizarren.
- Arrasate C - Leizaran Ernio**  
Udaberri Txap. Zapatuan. 17:30. Musakolan.
- Gatz Museoa Jakion - Leizaran**  
Gazteak. Zapatuan. 16:00. Musakolan.
- Gatz Museoa Jakion - Ereintza**  
Kadeteak. Domekan. 11:30. Musakolan.

**ERRUGBIA**

**Arrasate - Gaztedi**  
Seniorrak. Domekan. 12:00. Garagartzan.

**EMAITZAK**

**ESKUBALDIA**

- Udaberri Txap. Pulpo - AGR Arrasate ... 21-35
- Udaberri Txap. Arrasa B - Elgoibar ... 20-21
- Udaberri Txap. Urnieta - Arrasate C ... 29-21
- Gazt. Gatz Mus. - Donibane ... Bertan behera
- Kadete. Urola - Gatz Museoa ... Bertan behera

FUTBOLA

# Joan den astean deskantsua hartu eta gero, Elgoibarri aurre egiteko gertu dago Mondra

Trintxerperen kontrako partidua noiz jokatu duen erabaki barik, hirugarren postuan dagoen Elgoibarren kontra jokatu du talde arrasatearrak

XABIER URZELAI

**Elurrak on egin die lursailei. Tapaki zuriak garbitze lanak egin ditu, eta arnasberritu egin ditu inguruotako basoak. Mondrak ere hori behar du; arnasberritzea, eta asteburuan deskantsua hartu eta gero, arrasatearrak gertu daude preferenteko talde indartsu-  
netako bati aurre egiteko.**

Joan den astean, preferente mailako ibarreko lau taldeek ezin izan zuten jokatu. Horrenbestez, astelehenean, GOITBko *Har-mailatik* saioa osatzeko, lau talde horien entrenatzailearekin solasaldia izan zuen Julen Iriondo lankideak. Saio txukuna egin zuten, eta ibarreko lau entrenatzaileek Liga Txapelketari gainbegiratu egin zioten.

Beste gauza batzuen artean, Mondraren eta Bergararen bolada txarraren gainean egin zuten berba, baita azkenaldian Aretxabaletako taldea egiten dabilen lan onaren gainean ere. Helbu-

ruei buruz galdetzerakoan, argi utzi zuten lehenengo gauza mailari eusteko beharrezkoak diren 45 puntuak eskuratzea dela (Mondrak hamar puntu behar ditu), eta hortik aurrerakoa ongi torria izango dela.

Mondrari dagokionez, Josu Zubiak taldeari defentsa lanetan falta zaion kontzentrazioaren gainean egin zuten berba, eta Jon Murumendiarazen gainean berbetan egon baziren ere, Zubiak taldearen lana azpimarratu gura izan zuen. Eta, hor dago azkenaldian taldeak duen martxa txarrarekin amaitzeko giltza: talde-lana, hain zuzen.

## ASTEBURUAN ELGOIBARRERA

Mondrak hirugarren mailara igotzea helburu duen Elgoibarren kontra jokatu du asteburuan. Kontrario gogorra da, baina kontuan izan behar da Mondrak preferenteko edozein talderi aurre egiteko gauza dela erakutsi duela. Hori da taldeak ahaztu behar ez duena, lehen itzulian zuen konfiantza falta zaio-eta.



Mintxetan puntuak eskuratzea ez da erraza izango. Horretarako, arrasatearrak ondo jokatu beharko dute.

ARTXIBOA

## FOTOKIROLA



### Aurten ere kirol argazki lehiaketa antolatu du MUK

Mondragon Unibertsitateak kirol argazki lehiaketa antolatu du aurten ere. Lehiaketa horretan MUKo ikasle eta irakasleek hartu dezakete esku, eta *Kirola Mondragon Unibertsitatean* izango da gaia. Argazkiak zuri-beltzean edo koloreetan izan daitezke, eta argazki bakarra edo hiru argazki osatutako bilduma aurkeztu ahal izango da. Argazki onena aurkezten duenak 90 euro irabaziko ditu, eta argazki bilduma onenak 180 euro. Jakin, argazkiek gutxienez 20x30 zentimetroko neurria izan beharko dutela, eta 30x40 zentimetroko kartoi mehe euskarrietan aurkeztu beharko direla. Gainera, argazki bakoitzak izendatuta egon beharko du, eta izenak argazkiaren esangura islatu beharko du. Argazkiak apirilaren 2an aurkeztu beharko dira. /X.U.

## MENDIZEHARKO ESKIA

### Isa Casado Luz Ardidenen izango da asteburuan, Euskadiko Txapelketan

Eskiatzaile mondragoetarrak domekan Luz Ardidenen jokatu duen Euskadiko Mendizeharko Txapelketan hartuko du esku. Isa Casado Euskadiko Kopan dabil esku hartzen, baina domekako probak ez du Koparekin zerikusirik, txapelketa soila da.

Domekako lasterketa Luz Ardiden eski estazioan hasiko da. Estazioan, baina, hasierako kilometroak baino ez dituzte egingo, hasi eta berehala egingo dute-eta mendian gora. Bi proba egingo dituzte; bata popularra eta bestea goi mailakoa.

## IGERILEKUA

### Barruko igerilekua ur barik geratu zen domeka gauean, matxura izan zuelako

Musakolako kiroldegiko igerileku handia itxita egon da, domeka gauean izandako matxura baten ondorioz. Astelehen goizean igerilekura joan zirenek ezuste galanta hartu zuten, igerilekua ur barik zegoen-eta. Eguenera arte egon da itxita; igerilekua bete eta temperatura egokian jarri den arte, hain zuzen ere.

Igerilekuko uraren %5 atera egiten dute gauero, eta berria sartu. Horretaz arduratzen den makinak, baina, huts egin zuen igande gauean, eta %5 beharrean igerileku osoa hustu zuen.

## ZIKLOTURISTAK

### Debagoiena Zikloturista Taldeak domekan egingo du aurtengo lehen irteera

Debagoiena Zikloturista Taldekoek domekan hasiko dute denboraldia. Lehenengo irteera izanda, ez dute kilometro askorik egingo. Goizeko hamarretan, Arrasatetik Aramaiorako bidea hartuko dute, eta berriz jaitsiko dira Arrasatera. Gero, Arlabanera igo eta Dorletako Amabirjinari urteroko lore eskaintza egingo diote. Arlabandik Arrasatera itzuliko dira.

XAKEA

# Debagoieneko eskola arteko xake txapelketa jokatu zuten zapatuan

Txapelketa Musakolako kiroldegian jokatu zuten; 110 gaztetxok hartu behar zuten parte txapelketan, baina elurra zela-eta asko etxean geratu ziren

XABIER URZELAI

Uste zuten baino parte-hartze txikiagoa izan zuten Debagoieneko eskola arteko xake txapelketak. 110 neska-mutiko izan behar ziren txapelketan, baina elurra zela-eta asko txapelketara ez joatea erabaki zuten. Hala ere, txapelketa interesgarria jokatu zuten Musakolara joatera ausartu ziren 40 xakelari gazteek.

Debagoieneko ikastetxeek gain, Eibarko ikastetxeetako xakelariak ere Musakolan izan ziren zapatu goizean. Benjamin, alebin eta infantil mailetakok jokalariek hartu zuten esku txapelketan.

Maila bakoitzean lehenengo postuan sailkatu zirenak, bakar-ka zein taldeka, martxoan zehar Donostian jokatuko duten Gipuzkoako Txapelketarako sailkatu ziren. Benjamin mailan, Juan Manuel Ruiz oñatiarra erraz nagusitu zen, jokatu zituen partida guztiak irabazita. Puntu bateko aldearekin Andoni Egañak biga-

rren postuarekin konformatu behar izan zuen. Hirugarrena, berriz, Maider Etxagibel arrasatearra izan zen.

## TALDEKA, ARRASATEARRAK BIKAIN

Benjamin mailan, Arrasateko taldeek maila ona erakutsi zuten. Arizmendi-San Frantzisko Xabier taldeak eskuratu zuten puntu gehien, eta Arizmendi-San Viator izan zen bigarrena.

Alebin mailan, Julen Garro eibartarra eta Asier Etxagibel arrasatearra izan ziren kategorian jaun eta jabe. Bien arteko norgehiagokan eibartarra nagusitu zen. Hirugarrena, berriz, Jon Garrido oñatiarra izan zen. Arizmendi-San Viatoroko gaztetxoak izan ziren taldeka onenak, eta Oñatiko Santa Eskolastikoak bigarrenak.

Infantil mailan izan zen parekotasun handien, eta azkenean eibartarrak nagusitu ziren: Diego Olmo izan zen lehena eta Haritz Garro bigarrena. Hirugarren postuan arrasatear bat sailkatu zen: Asier Fernandez.



Elurra zela-eta, xakelari gazte asko ez ziren Musakolara joan, eta 40 parte-hartzaile izan ziren txapelketan.

## Bateratze prozesuari esker, inoiz baino haur gehiago Eskola Kirolean

Aurtengo ikasturtean inoiz baino haur gehiago dabilta Eskola Kirolean esku hartzen. Eta, parte-hartzearen gorakadaren arrazoia Arrasatek eta Aramaio-ko Aretxabaletarekin eta Eskoriatzarekin egin duten bateratze prozesua da. Bateratze prozesu horri esker, egun 1.060 neska-mutiko dabilta Eskola Kirolean. Horietako 733 haur Arrasatekoak eta Aramaio-

koak dira, eta 327 Aretxabaletakoak eta Eskoriatzakoak.

### KIROLA EGITEKO GUNEAK

Horrenbeste neska-mutikorendako kirol ekintzak antolatzea ez da batere erraza, eta horretan ibiltzen dira lanean monitorea eta arduradunak. Eskoriatzako kirolguneak Almen eta herriko kiroldegia dira. Aretxabaletan, Ibarra

futbol zelaietan eta kiroldegian egin dituzte kirol ekintzak. Azkenik, Arrasaten, Musakolako kiroldegian, Iturripeko kiroldegian, Uarkapen eta Gazteluondon ibiltzen dira.

Ikasturtea aspaldi hasi zuten, baita kirol ekintzak ere. 6 eta 8 urte bitarteko haurrek kirol jolasak egin dituzte: igeriketa, *Altxorren bila*... 8 eta 10 urte bitarteko gaztetxoak, berriz, aurrekirolean dabilta. Dagoeneko minieskubaloia, pilota, atletismoa, kirol egokitua, igeriketa eta minisaskibaloia egin dituzte. Orain, areto futboleko jardunaldietan dabilta buru-belarri. Azkenik, 10 eta 12 urte bitarteko gazteek 8nako futbola, areto futbola, pilota, atletismoa eta minisaskibaloia egin dituzte, eta orain eskubaloiko jardunaldietan dabilta.

### KIROL EKINTZETAKO TXAPELDUNAK

Aurrekirolean egin dituzten txapelketetan, minieskubaloian, 3. mailako Aramaio 3 taldea izan da txapelduna, eta 4. mailan Almen 4A taldea izan da onena.

Multikirolean, berriz, 8nako futboleko, Ezeizako mutilak nagusitu dira, eta areto futboleko, Almen 6A taldeko neska izan dira txapelketako onenak.

## FOTOKIROLA



### Atzeratutako partidua, domekan

Joan den domekan Arrasatek eta Gaztedik jokatu behar zuten partidua bertan behera geratu zen, eta oraingo domekan jokatuko dute norgehiagoka hori. Arrasatek beharrezkoa du irabaztea, David Jauregiren mutilak euren multzoko azkeneko postuan daude-eta. Gaztedi dago lehenengo postuan, Ximut Zarautz bigarrena da, eta Santanderko Unibertsitatea hirugarrena. Etxean bi partidua jokatu behar ditu Arrasatek, eta aurrera egingo du biak irabazi beharko ditu. /X.U.



ESKOLA KIROLA

Argazkian, Arizmendiko San Viator guneko haurrak.

ZINEMA/ Amaia Udal Antzokiko film eskaintza

# Emakumeen gaineko dokumentala eta komedia ingelesa ikusteko aukera Amaian

IKER BARANDIARAN

Arrasatearrek ondo erantzuten diote Udaleko Kultura Sailak astero Amaia Udal Antzokian antolatzen duen film eskaintzari. Gaurtik astelehenera arte, emakumeen gaineko dokumentala, Ingalaterrako komedia ezaguna eta umeendako filma emango dituzte.

Gaur, egubakoitza, zineklubean, *Extranjeras* film dokumentala emango dute, 20:30ean. Helena Taberna zuzendariak egin du eta gidoia ere berak idatzi du. 2000n *Yoyes* filma egin zuen. *Extranjeras* lanak 75 minutu irauten du.

Helena Tabernari film hori egiteko ideia Madrilen bururatu zitzaion, hara bizi izatera joan zenean. Madrilgo Lavapies auzoan bizi diren emakumeak ezagutu zituen, eta gidoia idatzi zuen. Filmean, hamasei herrialdetako 36 emakumek esku hartu dute, eta haien gaineko dokumentala egin du. Film hori Valladolideko Zinema Jaialdian estreinatu zuten, 2003an, eta oso harrera ona izan zuen.

Bihar, zapatua, eta domekan, *Las chicas del calendario* filma emango dute 19:00etan eta 22:00etan; baita astelehenean ere, 20:30ean. 108 minutu irauten du. Nigel Cole zuzendariak egin du, eta komedia da. Aurretik, Nigel Colek *El jardín de la alegría* film

arrakastatsua egin zuen. Ingalaterrako herri txiki baten alargun batek marihuana landatzea erabakiko du, eta herriko bazterrak nahastu egingo ditu. Oraingoan, benetako gertaera bat zinema aretoetara eraman gura izan du.

## KOMEDIA INGELESA

Chris eta Annie Yorkshire Dalesko (Ingalaterra) herri txiki baten bizi diren bi emakume nagusi dira. Baten senarra hil ondoren, herriko ospitalerako dirua batzea erabakiko dute. Egutegi bat egitea adostuko dute, eta Chris, Annie eta gainontzeko lagunak biluzik agertuko dira. Egutegia argitaratu ondoren, herri txiki horretan izugarriko iskanbila sortuko da, eta zeresan handia emango dute. Ingalaterrako hedabideek erreportajeak egin gura izango dituzte.

Helen Mirren eta Julie Walters aktoreak dira filmeko protagonistak. Mirrenek *Gosford Park* filmean egin zuen lan, eta Waltersek *Harry Potter* eta *Relaciones intimas* filmetan, besteak beste.

Etzi, domekan, *Elf* filma emango dute, 17:00etan. Jon Favreau aktoreak zuzendu du, eta bere bigarren filma da. 95 minutu irauten du.

Gabon gauean, ume bat Santa Clausen oparien zakuan sartuko da, eta Santa Clausek gura barik Ipar Poloan daukan taile-



ARRASATE PRESS

Helena Tabernak zuzendariak hainbat emakume kanpotarren bizipenak kontatuko dizkigu.

rrera eramango du. Han, umea iratxoekin heziko dute, baina bere burua lekuz kanpo ikusiko du, eta senideen bila joatea erabakiko du. Horregatik, Nueva Yorkerantz joko du. Film horren

protagonista Will Ferrell da. Ferrell oso ezaguna da AEBetan, telebistako *Saturday Night Live* saioan esku hartzen zuelako. Horrez gain, filmak ere egin izan ditu. James Caan aktorea ere

agertzen da. Caanek hainbat filmetan egin du lan: *Dogville*, *Mickey ojos azules*...

Martxoaren 12an (egubakoitza) ez da zineklubik egongo, beste ekitaldi bat dagoelako.

## Biodibertsitatearen gainean ipini duten erakusketak denetarik dauka

I.B.

Udalako Ingurugiro Eskolak biodibertsitatearen gaineko erakusketa zabaldu du Monterron jauregian. Martxoaren 1etik 15era arte, ikusgai egongo dira udalerriko landaretzaren, intsektuen eta gainontzeko animalien gaineko hainbat taula.

Udalako Ingurugiro Eskolak, urtero moduan, Zuhaitz Eguna antolatu du. Horrez gain, eta ingurumenaren aldeko jarduna egun bakarrera ez mugatzearen, biodibertsitatearen gaineko erakusketa ere antolatu du.

Erakusketa hori Gipuzkoako Entomologia Elkarteak eta Galemys enpresek egin dute, eta Arrasateko Txoko Naturalak liburuaren egile Urtzi Mendizabalek eta Rosa Agirrebeñak ere lagundu dute. Monterronen dago ikusgai, martxoaren 1etik 15era bitar-

tean, 18:00etatik 20:00etara. Besteak beste, eskoletatik joango dira erakusketa ikustera.

### KOLOREETAKO TAULAK, ARGAZKIEKIN

Antolatzaileek koloreetako hainbat taula ipini dituzte, eta horietako bakoitza argazkiz eta testuz josita dago. Informazio mordo bat dute horietako bakoitzean. Ekosistemen gaineko zazpi taula handi egin dituzte: udalerrian ditugun basoak; haitzetan dagoen landaretza (baldintza gogorretan garaile); belarrak; ibaiak; landak; itsasertza; eta basoak, hain zuzen ere.

Arrasateko Txoko Naturalak liburuaren egileek ere esku hartu dute erakusketan, eta ekosistema bakoitzaren ezaugarriak deskribatzeaz gain, horietan aurki daitezkeen espezieen gaineko informazioa eta argazkiak batu dituzte. Informazio kopuru handia batu dute erakusketan, eta oso interesgarria da.

Ekosistemen gaineko taulez gain, Arrasateko txoko naturalen gaineko mapa ere egin dute. Aipatutako liburuaren egileek egin dute lan hori. Besteak beste, udalerriko ingurune hauek nabarmendu dituzte: Bedoña, Gesalibar, Garagartza, Zalduspe eta Musakola, hain zuzen ere.

### UDALERRIKO TXOKO NATURALEN MAPA

Mapa hori oso zehatza da, eta bertan jasotako informazioak garrantzi handia dauka. Oso erabilgarria da, udalerrian gelditzen diren espezieen berri zuzenagoa izateko.

Horiez guztiez gain, Gipuzkoako Entomologia Elkarteak hainbat taula eta kaxa batu ditu. Entomologia intsektuak aztertzen dituen zientzia da, eta horregatik, Arrasatera intsektu mordo ekarri dituzte, kaxatan. Horrez gain, intsektuen gaineko hainbat taula ere ipini dituzte, informazio askorekin.



Badago zer ikusi eta zer ikasi erakusketa horretan.

IKER BARANDIARAN

ELKARRIZKETA

LOS CRETINOS/MUSIKA TALDEA

# "Laetor, zortzi pistako mahai batokin grabatuko ditugu kantu batzuk"

IKER BARANDIARAN

Los Cretinos taldea gazte samarra da, baina aspaldian ezaguna bilakatu da. Orain dela gutxi, Iluntz eta Biona tabernetan eman dituzte kontzertuak, eta sasoin daudela erakutsi dute. Maketaren bat grabatu gura dute.

Nortzuek osatzen duzue taldea?

Aitorrek (bateria jotzailea), Jaimek (abeslaria, gitarra eta armonika jotzailea), Oierrek (baxu jotzailea) eta Ibaiek (gitarra jotzailea).

Aurretik beste talderen baten jotzen zenuten? Eta orain, baduzue beste talderik?

Ibaiek Eskizofrenia Rock punk taldean jo zuen. Gaur egun, Quadrophonic taldean abestu eta gitarra jotzen du. Aitorrek Remembers taldean jo zuen; rock-and-roll poperoa egiten zuten.

Noiz eta zergatik erabaki zenuten taldea sortzea?

2002an, 70eko hamarkadako lehen jaietan, Aitorrek eta biok (Jaime) bat egin genuen, eta zerbait batera egitea erabaki genuen. Orduan, Musakolako lokaletan entseatzen hasi ginen. Gero, beste bi lagunak batu zitzaizkigun. Lehenengo kontzertua Uarkapen egin genuen, *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko jaialdian.

Zein helburu zenituzten taldea sortzerakoan?

Ahalik eta gehien jotzea, gustuko duguna egiten ahalegintzea eta ondo pasatzea.

Zein musika mota egiten duzue?

Batez ere, rock-and-roll klasikoa. Baina abesti batzuk gogorragoak dira. Punkarendako rockeroegiak, eta rockarendako punkegiak. Lau akorde, 4x4...

Zuendako erreferentzia garrantzitsua da Burning, ezta?

Bai, baina baita Johnny Thunders, Ramones, Loquillo eta beste batzuk ere.

Inoiz Rompecorazones izenarekin bertsioak eskaini dituzue...

Bertsioak jotzea gustuko dugu, baina gurago dugu kantu propioak jo. Bertsioak osagarriak dira. Batez ere, Thunders, Ramones, NY Dolls, Loquillo eta Rollingen bertsioak jotzen ditugu. Hasieran, Ramones taldearen *It's alive* diskoa zuzenean jotzen ahalegintzen ginen, baina ez genituen abestiak bukatzen.

Zenbat abesti propio dituzue?

Hamahiru-hamalau bat, gutxienez.

Epe motzera kontzertu gehiago emango dituzue?



LOS CRETINOS

*"Teklatua jotzen duen norbait behar dugu; gure kantuek asko irabaziko dutela uste dugu"*

Eskoriatzan jotzeko esan digute, baina ez dugu ezer konfirmatu. Orain, gogor entseatu gura dugu, eta laster, zortzi pistako mahai batekin, lokalean, kantu batzuk grabatuko ditugu. Grabazio hori, batez ere, guk gordetzeko da. Lagunen artean ere banatuko dugu, kontzertuetan kantuak abes ditzaten. (Barre)

Inoiz lehiaketaren baten esku hartzea pentsatu duzue?

Behin, Bilbo Hiria lehiaketara maketa bat bidaltzeko puntuan egon ginen, baina berandu ibili ginen. Baliteke etorkizunean esku hartzea.

Aspaldian gaztetxe gainean entseatzen duzue, eta aurretik Musakolan ibili zineten...

Musakolan zortzi hilabete egin genituen, eta 2003ko ekaina ezker gaztetxe gainean gaude. Musakolan oso hezetasun handia zegoen, handiegia. Orain, oso ondo gaude. Udalak oso jarrera ona izan

*"Bertsioak gustuko ditugu, baina gurago dugu kantu propioak jo; osagarriak dira"*

du. Aurrekoa ikusita, gaztetxe gaineko lokala oso ondo dago. Gure lokalean hiru talde gaude: Turboamor, El Hombre que Dijo Hockey eta hirurok.

Gaztelaraz abesten duzue...

Halaxe irtetzen zaigu. Nik (Jaime), abestiak idazterakoan, gaztelaraz egiten ditut. Ez ditut inoiz euskaraz ezta ingelesez egiten.

Hitz guztiak zuk zeuk egiten dituzu?

Bai. *Triste mi cadillac* maitasunaren eta desamodioaren gainekoa da; hirietako banden gaineko beste bat; surfaren gainekoa; taldearen sorrera kontaktzen duen beste bat; neska kanpora joan zenean, bakarrik gelditu nintzenekoa; neskaren bila joan nintzenekoa... Bizi izan ditugun gauzak kontaktzen ditugu.

Zein asmo daukazue orain, kantuak grabatzea?

Bai, kantuak ondo prestatu eta horiek grabatzea. Horrez gain,

*"Abestietan, bizi izan ditugun gauzak kontaktzen ditugu; pasarteak, maitasun kontuak, eta abar"*

teklatura jotzen duen norbait behar dugu. Mutil batekin proba batzuk egin genituen, eta gure ustez kantuek asko irabazi dute teklaturarekin, ukitu rockeroagoa hartzen dute. Haren erantzunaren zain gaude. Bestela, beste norbait hartu beharko dugu.

Zer deritozue Arrasateko musika taldeen egorari?

Arrasate musika taldeei dago kienez oso egoera onean dago. Talde onak daude. Guri gehien gustatzen zaizkigunak honako hauek dira: Jukebox eta Los Chicos Boom. Biak hala biak rockeroenak. Bestelakoak ere badaude.

Jaime, bakarlarari moduan ere ibiltzen zara...

Bai, aspalditik etxean gitarra espainolarekin kantuak egiten ditut. Cretinos-endako hain proposak ez diren kantuak, hain gogorak ez direnak, gordeta dauzkatz. Birritan jo ditut akustikoan, eta harrera ona izan dute.

KULTURAPILULAK

Ipparaldea Bertan ekimena egingo dute apirilean

Arrasateko Udalaren ekimenez, Mankomunitatea Ipparaldea Bertan kultura ekimena antolatzen dabil. Apirilaren bigarren hamabostaldian, Ipparaldeko kultura aditza emateko hainbat ekitaldi egingo dituzte Arrasate eta ibarreko beste herritak bazuetan.

Orain dela gutxi, Ipparaldeko hainbat elkarte Arrasateko Udalarekin jarri zirela harremanetan, herritar hainbat ekitaldi antolatzea. Hain zuzen ere, asmoa da Ipparaldeko ohiturak gure artean zabaltzea. Azkenean, ekimena hori Debagoien osora zabaltzea erabaki zuten. Bide batez, Ipparaldeko ohiturak Debagoien osoan zabaltzeko asmoa. Gauzak horrela, Arrasateko Udalak Mankomunitatearen horren guztiorren antolatze kuntzaz arduratzeko proposamena egin zion, eta hainbat onartu egin zuten.

Modu horretan, ekimena horretan esku hartuko dituzten udal guztiak egingo dira gastuen kargu. Hain zuzen ere, proportzioan ordainduko dituzte gastu horiek.

Lehenengo aldia da Debagoieneko Mankomunitatearen ibarrean kultura ekimena antolatzen duena.

Hain zuzen ere, apirilaren bigarren hamabostaldian egingo dute ibarreko hainbat herritan, eta, besteak beste, baleta, gastronomia ekitaldiak eta hainbat erakusketa antolatuko dituzte.

Talde erakusketa egingo dute Harresi aretoan

Martxoaren 12an, herritar hainbat margolarik talde erakusketa egingo dute Harresi aretoan. Horietako batzuk Monterrongo margo ikasketan roetan ibili dira. Honako hauek esku hartuko dituzte erakusketan: Juan Ramon Zugasti, Angelines Ruiz, Beatriz Romero, Gloria Uriarte eta Jaione Ayanik, hain zuzen

Oihulari Klown taldearen 'Divinas' ikuskizuna, Amaia

Datorren domekan, martxoaren 14an, Oihulari Klown taldeak *Divinas* ikuskizuna eskainiko du Amaia Antzokian, 19:30ean. Ikuskizun hori Emakume Txikiak taldearen Martxoaren 8ko egitarauan antolatu dute.

Ikuskizun horretan pertsonaia jankotiarrik antolatzen dira, eta barrez leheratzen dituzte komedia da.

E, TXO!

GUREGAIK / AISIALDIRAKO BEGIRALE IKASTAROA

# Ekainera bitartean, begirale ikastaroa Txatxilipurdiren eskutik

## GAUR, EGUBAKOITZA, KONTZERTUA GAZTETXEAN

Gaur, egubakoitza, Bilboko Iraina eta Zuldor taldeek kontzertua egingo dute gaxttxeant. 22:30ean izango da, doan.

## PUNK ETA OI! KONTZERTUA GAZTETXEAN

Bihar, zapatua, kontzertua egingo dute, gaxttxeant, Arrasateko Des-Kontrol eta Ardi Galduek eta Lazkaoko Brigada Criminal taldeek, 22:00etan.

## LUDOTEKA IBILTARIA, USAETXE PLAZAN

Bihar, zapatua, eta martxoaren 13an, 27an, eta apirilaren 3an, ludoteka ibiltaria egongo da Usaetxe plazan. 11:00etatik 13:30era, ume eta gaxttxeok jolasteko aukera izango dute.

## GAZTE GIPUZKOARRAK ORDENAGAILUEKIN

15 urtetik gora duten Gipuzkoako ikasleen %94k ordenagailua dute ikastetxean, eta %87k Internet erabiltzeko aukera dute.

## ELGOIBARREN 'BOTILOIA' KENTZEKO PLANA

EAEEn, Elgoibar da botiloia-ren fenomeno gehien jasaten duen herrietako bat. Eusko Jauriaritzaren Droga-menpekotasunen Zuzendaritzatik konponbidea eman gura diote arazo horri, eta plan bat abiarazi dute.

## DUINAK ETXEBIZITZA ARAZOA SALATU DU

Euskal Herriko hainbat herritan egin ditu Duinak aldarrikapenak, erakundeen jarrera aldatzeko. Etxe hutsak erabiltzea proposatu du. Duinak okupazioaren alde egiten du. Duela gutxi, Euskal Herriko hainbat herritan etxebizitza hutsak markatu zituen, okupazio lanak errazteko asmotan.

IKER BARANDIARAN

**Txatxilipurdik, Urtxintxa eskolaren laguntzarekin, aisialdirako begirale ikastaroa antolatu du. Ikastaroa urtarrilean hasi zen eta ekainaren hasiera arte jardungo dute horretan, zapaturu.**

Ezagun da Txatxilipurdik aspalditik ume eta gazteei euskarazko aisialdi zerbitzua eskaintzen die-la. Izan ere, euskarazko esparru horretan, EAEEn, zerbitzu horren 7.000 bat hartzaile daude, eta horietatik, 4.000k Txatxilipurdiren zerbitzuak hartzen dituzte. 4.000, Txatxilipurdiren zerbitzu gehienak batuta. Hau da, ludoteka, Txikilandia, zapatuetoekin-tzak, Aisialdia eta eskola proiektua eta bestelakoetan esku hartzen duten ume eta gaxttxeok kontuan hartuta.

Txatxilipurdiko Elena Herrarteren esanetan, ekintza horiek guztiek begirale premia handia eskatzen dute. Horregatik, Txatxilipurdik ia urtero antolatzen ditu aisialdirako begirale ikastaroak. Are gehiago, zerbitzu hori kalitatezkoa izan dadin, prestakuntzari garrantzi handia ematen dio. Txatxilipurdiren ekin-tzetan begirale lanak egiten dituz-



TXATXILIPURDI

Zapaturu, Urtxintxa eskolak oso ikastaro dinamikoak ematen du.

ten gehienak 18 eta 22 urte arteko gazteak dira, eta horiei oso lagungarri zaie ikastaroetan eskaintzen dieten prestakuntza.

## ASTEBURURO, IKASTAROA

Aurtengo ikastaroa Urtxintxa eskolako irakasleak ematen dabilta, eta bukatzerakoan, ikasleei titulu ofiziala emango diete. Hamaika lagunek eman zuten izena ikastaroan. Urte hasieratik

ekainaren hasiera bitartean zapaturu elkartuko dira. Horrez gain, hilean behin asteburu osoko egonaldia egiten dute Udalako Ingurugiro Eskolan. Ikastaroan izena eman duten lagunak artean, arrasatearrez gainera, beste herri batzuetakoak ere badaude.

## PARTE-HARTZAILEA ETA DINAMIKOA

Ikastaro horretan hainbat gai landuko dituzte, hala nola: ume-

*Txatxilipurdiren ekintzek kalitatezko prestakuntza izan duten gazteen premia handia dute*

en eta gazteen ezaugarriak, soziolinguistika, lehen laguntzak, aisialdiaren kontzeptua, aisialdiaren historia, hezkuntza ereduak, eta abar. Era berean, ikasgaiok arlo asko ukitzen dituzte, eta metodologia aldetik, ikastaroa oso parte-hartzailea eta dinamiko da.

Ikastaroa Urtxintxako Mikel Uribarrenekin koordinatzen du, eta Txatxilipurdiko arduradunek ere hartzen dute parte. Horien esanetan, begiraleek baliabide asko eduki behar dituzte umeekin ibiltzen jakiteko. Horrekin batera, talde-lanean jarduten ere ikasi behar dute. Are gehiago, begiraleen eginbeharraren ezinbestekoak dira ezagutza horiek. Izan ere, Txatxilipurdiren iritziak, oso garrantzitsuak da begirale izan gura duten gazteei oinarri batzuk ematea.

## Ikasleak txateatzen ibili ziren, euskaraz

I.B.

**Joan den egunean, Arrasateko Euskalgintzaren Plan Estrategikoaren eskutik, herriko ikastetxe guztiek, AEDk eta Txatxilipurdik eskola arteko euskarazko txata antolatu zuten. Ikasle askok hartu zuten parte.**

Arrasateko Euskalgintza euskararen normalizaziorako plan estratagikoaren barruan hainbat pauso ematen dabil, eta joan den

egunean, herriko ikastetxeek, AEDk eta Txatxilipurdik euskarazko txata antolatu zuten. Ekin-menak arrakasta handia izan zuten, eta gazteak oso gustura ibili ziren Interneten bitartez harremanetan.

Arizmendiko San Viator ikastetxeko, Arrasate-Aretxabaleta institutuko eta Mesedeetako Amako DBHko laugarren mailako neska-mutikoak, nor bere ikastetxean, elkarren artean harremanetan ibili ziren, txataren

bitartez. Eguen goizean ordubete inguru ibili ziren ikasle mor-doa txateatzen. Ekimenaren antolatzaileak oso pozik daude ikasleek emandako harreragatik.

## ESKOLA, AISIALDIA ETA EUSKARA LOTU

Hori baino lehenago, Arrasateko Euskalgintzak ikastetxeen eta euskararen egoeraren diagnostia egin zuen. Euskalgintzak euskararen gainean hainbat hutsune eta gabestia ikusi zituen, eta horren arabera garatu zuen pla-

na, normalizazio plan bat, hain zuzen ere.

Hizkuntzaren normalizazioaren aldeko pausoak ematea erabaki zuten. Helburu horren harira, txaten ekimena antolatu zuten. Hain zuzen ere, ekimen horren bitartez, ikasleek darabilten hizkuntza informalean beste ikasle batzuekin euskaraz egin zuten.

Gazteek Internet asko erabiltzen dute, baina gaxttxelariarako joera handia dute, eta Euskalgintzak horrekin apurtu gura du.

HIES  
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

ESKORIATZA  
Tfno 714345  
ERRETEGIA  
MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita  
ESKORIATZA

DOKE

KAFETEGIA  
ETA  
ARDAUTEGIA

Garibai 6. Tel.: 943 79 28 06

Ardoetan aukera zabala, bait kopatan bai botilatan:

Errioxakoa, Torokoa, Erriberakoa...

Aurkezpena eta ardo dastatzeak.

## BEHEKODENDATIK

## Angela Garcia

## ANGELA ESTETIKA ZENTROA

XABIER URZELAI

Angelak oin dala urtebete zabaldu euen estetika zentrua, Ferrerías kalien. Aspaldi hasi zan, baiñe, estetika kontuetan lanien, zortzi urte egin dittu-eta perfumerixa baten. Angela estetika zentruen, gaiñera, badakixe estresari zela egin aurre. Sekulako masajiek emuten dittue, nahiz eta guk ez dittugun probau.

## Ze falta jako Mondragueri?

Oin momentuen ez neuke jakin-go esaten.

## Eta, ze dauko ona?

Jentiek lana daukola.

## Ze falta jatzu zeuri?

Denpora librie eta lanerako leku haundixaue.

## Eta, ze dauketzu sobran?

Gauza gutxi dauket sobran.

## Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

*Ghost*. Negar eta negar egin dot pelikula horrekin... / *Los pilares de la tierra* / Sergio Dalma gustetan jat.

## Momentu honetan nora juengo zitzake gustora?

Egun gutxi barru Mexikora noie; eta gustora noie, gaiñera. Egiptora be juengo nitzake.

## Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Plantxie.

## Tranpan ibilttektan norbaittekin, zeñekin?

Sergio Dalmakin, adibidez.

## Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Dauketena baiño denpora luziaue eukittie.

## Denpora librien ze egitten dozu?

Deskantsau.

## Kapritxo bat.

Bitxiren bat-edo erostie.

## Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Edozein lekutan gordeta dauen etxetxo baten.

## Ze irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSEn?

Jente danak esaten dauena: pakie lortu dogule-edo...



*"Itsaso Hilleko buztiñekin egitten dittugu masajiek, baitte harri bolkanikuekin be"*

## Ze ofreziduten dozue Angela estetika zentruen?

Gauza asko egitten dittugu hamen. Estetika zentruetan egitten dien gauzez aparte, azkenaldixen relajaziñuekin harremana daukien gauzak egitten dittugu: harri bolkanikuekin masajiek...

## Itsaso Hilleko buztiñekin masajiek emuten dittuzue. Ze dauko horrek buztiñorrek?

Oligoelemento mordue: kaltziue, bromue... Horreik propiedadiok gorputzek absorbidu egitten dittu, eta masajie askoz be kompletuaue da.

## Masajiek relajetako ala lesiñuen tratamendurako be egitten dittuzue?

*"Jente askori mosuen igerten jako relajetako masajeren bat biher dauen edo ez"*

Bixetarako egitten dittugu; bai lesiñuek tratetako eta baitte relajetako be.

## Relajaziñoko masaje baten ostien, geratu da iñor lo?

Bai, eta askotan hori izeten da geure helburue. Argi gutxi ipiñi eta relajetako masajie egitten dogu. Mosuen igerten da zeñek biher dauen holako masaje bat.

## Dietetikan eta elikaduran diplomaue dan jentiek be egitten dozue lan.

Bai, eta oso gustora gauz, gaiñera. Dietarik egin barik jentiei ze eta zelan jan biher dauen erakusten dutzou. Jateko orduen ohitura batzuk aldatetie da, eta emaitzak oso onak die.


## NIREBIDAIAHURA/ Ekain Zubizarreta

Kolonbia eta Kuba / 2003ko maiatzetik abuztura arte

Ekainek Kolonbian egin zituen, joan den urtean, Humanitate-Enpresako ikasketen hirugarren urteko praktikak. Bi hilabete egin zituen Kolonbian, Jone Karrera ikaskidearekin batera. Kolonbian, Totoroek komunitatean izan ziren, eta hiru proiektutan hartu zuten esku: "Besteak beste, uraren komertzializazioan eta fizezko zakuen produkzioan ibili ginen lanean. Hemengo enpresetan zelan lan egiten duten azaltzen eta prestakuntza maila bultzatzen ibili ginen, baina ez ginen joan esatera zelan egin behar zuten lan. Gainera, bi hilabete Kolonbian egon eta gero, eman baino dezente gehiago jaso genuen. Hau da, ezer irakatsi baino gehiago, guk ikasi genituen gauza mordoa".

Hango bizilagunekin hartu-eman handia izan zuten Ekainek eta Jonek: "Nagusiekin eta gazteekin luze egiten genuen berba, eta gauza asko galdetzen zizkiguten. Hango gazteak duten adinerako oso helduak direla esango nuke. Bizimodu gogorra izan dute, eta ondo dakite lan egitea zer den. Horrez gain, sinismen handiko jendea da, eta guk erlijioarekin horrenbesteko loturarik ez geneukala ikusita, harritu egiten ziren".

Ekainen esanetan, hango herritarrek egunerokoari ematen diote garrantzia; izan ere, batek daki bihar non egongo diren. "Pobretasunean bizi dira, baina inor ez da gosez hiltzen. Badaukate jatekoa, nahiz eta patata, garia eta arroza baino ez izan". Arazorik izan ote zuten galdetuta, ez zuten erantzun digu: "Militarrak herrixkara sartu zirenean inpresionatuta geratu ginen, baina gero ohitu egin ginen". Ekainekin jarraituko dugu datorren astean Kolonbiatik Kubara eramango gaitu-eta.



*"Argi daukat irakatsi genuena baino gehiago ikasi genuela"*

*"Gu ez ginen joan esatera zelan egin behar duten lan"*

XABIER URZELAI



Ekain Zubizarreta Guanbianoko bi herritarrekin.

## Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?  
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.





ZAHARREN ETXETIK



Emakumezkoak gizonezkoak baino gogorrago ibili ziren karta jokoa.

# Uribarri elkarteak karta-joko txapelketako sariak banatu dituzte

IKER BARANDIARAN

**A**tzo, eguena, aurtengo karta-joko txapelketako sari banaketa egin zuten Uribarri erretiratuen elkarteak. Joan den astean, tute, mus eta briska txapelketak jokatu zituzten elkarteak, eta atzo banatu zituzten sariak.

Eguazten arratsaldean, hiru bikote mus txapelketa jokatu zuten. Dirudienek, Uribarri elkarteak ez dago musarekiko zaletasun handirik. 17:00etatik 20:30era ibili ziren jokoa, eta honako hauek izan ziren irabazleak: Damaso Sanchez eta Pedro Polvorines. Txapelkunordeak, berriz, Alberto Borge eta Antonio Fernandez izan ziren.

Eguenean, briska txapelketa jokatu zuten. Zortzi bikote lehia-tu ziren. Guztiak emakumezkoak, bat izan ezik. Arratsalde osoa egin zuten jokoa, eta honako hauek izan ziren irabazleak: Luisa Palma eta Juli Buggedo. Txapelkunordeak, berriz, honako hauek izan ziren: Margarita Perrino eta Tomasa Fernandez.

Egubakoitzean, hamabi bikote ibili ziren tutean: emakumezko zortzi bikote eta gizonezko lau. Agapito Moreno eta Marino Hidalgo izan ziren irabazleak eta Irene Prieto eta Agustina Vicario txapelkunordeak.

Hala, atzo, parte-hartzaile guztiek askaria egin zuten, eta iratu

bazleei hainbat sari eman zizkieten. Aurten ez dute trofeorik eman; horren ordez janaria eta edaria banatu zuten.

### EPAILE ZORROTZA

Ia urtero Bittor Altubek antolatzen du Uribarri elkarteak karta-joko txapelketa. Altubek sei urte baino gehiago daramatza horretan, eta ez dago hura baino epaile zorrotzagorik. Altubek ondo kontrolatuta izan zuen hiru egunetako jokoa, eta ez zion inork kale egin. Horretarako, jokalarien artean taula batzuk banatu zituen, eta puntuka zenbatu zuten.

### ARRASATEKO TXAPELKETARA

Txapelketaren harira, sariak jaso zituzten bikoteek Uribarri elkarteak ordezkatuko dute Abaroan jokatu den Arrasateko erretiratuen txapelketan. Urtero bezala, herriko erretiratuen elkarteak Abaroan lehiatuko dira. Eta txapelketa horretako sail bakoitzean irabazten duten bikote edo gizabanakoek Arrasateko erretiratuak ordezkatuko dituzte beste herri batzuetako aurka.

## Tabernan ere karta-jokoa

**Uribarri elkarteak jokatu ari zuten egunetako gauza batek harritu gintuen; izan ere, tabernan elkarteak baino lagun gehiago zebiltzan karta-jokoa. Eta, jakina, tabernan zeuden guzti-guztiak gizonezkoak ziren. Jarrera horrekin, elkartera sartu barik, zelan ez diete, bada, emakumeek txapelketan aurre hartuko?**

## LABUR

### 1958ko eta 1951ko kintoak urteko batzarrak antolatzen dabilza martxorako

1958ko kintoak (1937an jaiotakoek) urteko batzarra egingo dute martxoaren 27an. 12:30ean, meza izango dute. Horren ostean, txikiteoa eta bazkaria Musakola Hostalean. Interesatuak eman izena lehenbailehen, eta 20 euro ordaindu. Riviere (943 79 10 57).

Bestalde, 1951ko kintoak (1930ean jaiotakoek) martxoaren 6an egingo dute urteko batzarra. Juan Jose Uribarren (943 79 80 08).

### Uribarri elkarteak Extremadurako bidaiarako zozketa eta hainbat berbaldi antolatu ditu

Martxoaren 10ean (eguztina), Uribarri erretiratuen elkarteak Extremadurako bidaiarako zozketa egingo du, 17:00etan. Zozketa puntuala izango da. Bestalde, martxoaren 18an (eguna), elikaduraren eta mantenu gaien gaineko berbaldi antolatu dute. 17:00etan izango da, Kutzak antolatu du eta Gipuzkoako Erizainen eskolak emango du.



### Uribarri eta Abaroan batzar orokorrak

Uribarri eta Abaroan elkarteetan batzar orokorrak egingo dituzte laster. Uribarriko erretiratuek martxoaren 13an (zapatua) egingo dute. Lehenengo, meza izango dute Uribarriko parrokiaren. Horren ostean, 12:30ean, batzar orokorra egingo dute. Baliteke elkarteak presidente izateko hautagaiak aurkeztea.

Martxoaren 12an (egubakoitza), berriz, Abaroan erretiratuen elkarteak batzar orokorra egingo du. 17:00etan egingo dute. Ustez ez da aldaketa handirik gertatuko Arrasateko erretiratuen elkarte handienaren batzarrean. //B.

# BITTORI ERRETEGIA

**Eguneko menua - Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak**

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



**Gambrinus  
garagardotegia**

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

## CE ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



ARRASATE  
**Audrey Gomez**  
Martxoaren 10ean, 12 urte. Zorionak! Gurasoak, Nagore eta Julen.



ARRASATE  
**Maialen Zabaleta**  
Martxoaren 1ean, 19 urte. Zorionak! Amamaren partetik.



ARRASATE  
**Marcelino Sanz**  
Otsailaren 24an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoan partetik.




ARRASATE  
**Markel Moron**  
Martxoaren 8an, 6 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Oscar Lagullon**  
Otsailaren 27an, 12 urte. Zorionak! Gurasoen eta arrebaaren partetik.



ARRASATE  
**Ander Molinuevo**  
Otsailaren 23an, 6 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARAMAIO  
**Alaitz Elejalde**  
Martxoaren 8an, 1 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Pilar Urkia**  
Martxoaren 2an, 61 urte. Zorionak, amama! Beñat eta Etxekoak.



ARAMAIO  
**Ibai Cervero**  
Martxoaren 6an, 7 urte. Zorionak! Etxekoak eta Eider eta Maialen.



ARRASATE  
**Itsaso Ugalde**  
Martxoaren 6an, 14 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ESKORIAITZA  
**Angel Torres**  
Martxoaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak! Familiakoan partetik.



ARRASATE  
**M<sup>a</sup> Carmen Apaolaza**  
Martxoaren 5ean, 54 urte. Zorionak! Familiakoan partetik.



ARRASATE  
**Joseba Heriz**  
Martxoaren 5ean, 17 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARAMAIO  
**Pilar Ormaetxea**  
Martxoaren 9an, urtebetetzea. Zorionak! Raul eta Alizia.



ARAMAIO  
**Jose Perez**  
Martxoaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak! Raul, Alizia eta Rebeca.




ARRASATE  
**Jon Agirre**  
Martxoaren 8an, 63 urte. Zorionak, Jontxu! Alaitz eta Irati.



ARRASATE  
**Jimmy Alvarez**  
Otsailaren 23an, urtebetetzea. Zorionak! Koadrilakoan partetik.



ARRASATE  
**Jon Etxebarria**  
Otsailaren 26an, 21 urte. Zorionak! CPUren partetik.



ARRASATE  
**Mikel Gorroñogoitia**  
Martxoaren 3an, 21 urte. Zorionak, Elvis! Priscilaren partetik.



ARRASATE  
**Uxue Ezpeleta**  
Martxoaren 11n, 5 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Use Rodriguez**  
Martxoaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak! June eta etxekoak.



ARRASATE  
**Marta Garcia**  
Martxoaren 7an, 7 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Vivi Monne**  
Martxoaren 7an, 26 urte. Zorionak! Alfonsoren eta Iñakiren partetik.



ARRASATE  
**Lorea Amutxastegi**  
Martxoaren 7an, 16 urte. Zorionak! Iñaki, ama, Andoni eta Julen.



ANTZUOLA  
**Alaitz Urkiola**  
Martxoaren 5ean, 10 urte. Zorionak! Amaren eta aitaren partetik.



ARRASATE  
**Alex Fernandez**  
Martxoaren 3an, 5 urte. Zorionak! Familiakoan partetik.



ARRASATE  
**Izar Ijurre**  
Martxoaren 11n, 6 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Aratz Arsuaga**  
Martxoaren 11n, 6 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Itziar Gardoki**  
Martxoaren 7an, 22 urte. Zorionak! Maite, Aitor eta Lorena.



ARRASATE  
**Maite Iraeta**  
Martxoaren 7an, 4 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARAMAIO  
**Ander Ibabe**  
Martxoaren 11n, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoan partetik.



OTXANDIO  
**Iñigo Larragoiti**  
Martxoaren 7an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARAMAIO  
**Alazne Ibabe**  
Martxoaren 7an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Jose Arana**  
Martxoaren 6an, urtebetetzea. Zorionak! Oier eta Miren.



ARRASATE  
**Oier Arana**  
Martxoaren 7an, 7 urte. Zorionak! Aita, ama eta Miren.



ARRASATE  
**Fernando Arana**  
Martxoaren 12an, urtebetetzea. Zorionak! Ama, Miren eta Oier.



ARRASATE  
**Aitor Mujika**  
Martxoaren 5ean, 5 urte. Zorionak! Familiakoan partetik.

## Adi!

Argazkiak emateko lekua:  
**Arrasate:**  
ARRASATE PRESS  
Otalora Lizentziaduna 31.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.  
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.  
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurrak ARRASATE PRESSen agertu ondoren.  
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Zein urtetan inauguratu zuten Zigorrolako astoaren monumentua?  
Arrastoa: hauteskundeetan 'Txiron'-ek irabazi zuten bi urteko etenaldiaren ostean.

**Super BM**

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Molen Beer garagardoa**  
33 cl-ko lata

**0,25€** 42 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**ARANTZA EZKURRA**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Arantza!  
Galderen erantzun zuzena:  
**Volkswagen DKW** markakoa.

ARRASATEKO HISTORIA

# Herriko zenbait kaleren historia apur bat

MONDRAGON SUS CALLES' / J. LETONA

Arrasateko lau gune aztertuko ditugu historiari eskaintzen diogun tarte honetan. Gaurkoarekin, Jose Letonaren *Mondragon sus calles* liburuarekin egiten genbiltzan gainbegiratu amaituko dugu. Baina, hori baino lehen, Joan Bengoa kalea, Doctor Bolibar kalea eta Jose Maria Eguren eta Doctor Cordoba y Oro plazen gainekoak kontatuko ditugu.

Joan Bengoa kalea: Zigorrolan dago; Gipuzkoa etorbidean hasten da eta Elkano kalean bukatzen da. Joan Bengoaren omenez ipini zioten izena kale horri. Joan Bengoa Eskoriatzako Gellao auzokoa zen. Independentziaren Gerra izan zenean, Garagartzako parrokoa zen (1773-1818) eta baita Arrasateko artzapezpikua ere (1796-1818). Era berean, frantsesak atzetik izan zituen Espainiako Nazioaren aldeko atxikimendua erakutsi zuelako. Horren ondorioz, kanpora alde egin behar izan zuten, gerra bukatu arte.

Besteak beste, haren familia-tik Pedro Bengoa eta Maria Cruz Bengoa dira aipatzekoak. Pedro Bengoa Kalagorriko katedraleko diruzaina izan zen eta Naiarako artxidakonoa; eta Maria Cruz



UBANE MADERA

San Andres auzoan dago Doctor Cordoba y Oro plaza.

Bengoa, berriz, Madrilgo Santa Teresa errege-komentuko priorrea izan zen.

**DOCTOR BOLIBAR KALEA**

Zigorrola auzoan dago baita ere Doctor Bolibar kalea. Hain zuzen ere, Joan Bengoa kaletik sartzen

*Juan Maria Eguren  
arrasatearrak  
euskararekin  
lotutako pare bat  
hiztegi idatzi zituen*

da. Bolibar arrasatearraren omenez ipini zioten izena.

Doctor Bolibar (XVI.-XVII. mendea): Arrasaten jaio zen. Eta Alcala de Henaresko unibertsitatean katedraduna izan zen, Teologian. Horrez gainera, Toledoko elizako kalonjea ere izan zen. Pro-

bintziak bereziki zoriondu zuten, 1611n Alcala de Henaresko errektore izendatu zutenean.

**JUAN MARIA EGUREN PLAZA**

Zigorrolatik Grupo San Juanera joango gara, han dago eta Juan Maria Eguren izeneko plaza; Juan Maria Eguren arrasatearraren omenez ipini zioten izena. Izan ere, Juan Maria Eguren hezkuntza-ikuskatzaile izan zen urte luzez Gipuzkoan eta Araban. Besteak beste, *Euskara-Gaztelera hiztegia edo Esku hiztegia* eta *Gaztelera Euskal Herriko eskoletan irakasteko metodo praktikoa* idatzi zituen. Arrasaten jaio zen eta Gasteizen hil zen, 1880an.

**DOCTOR CORDOBA Y ORO PLAZA**

Eta Grupo San Juandik San Andres auzora goaz. Gasteiztik Ondarroara joateko antzinako bidetik gertu. Hantxe dago Doctor Cordoba y Oro plaza, San Andresen, gunerik urrunenean. Martin Cordoba y Oro arrasatearrarengatik ipini zioten izena. Martin Cordoba y Oro 1615. urtean jaio zen Arrasaten eta 1658an hil zen, Cuencan. Ourenseko apezpikua izan zen, eta Ciudad Rodrigoko apezpiku eta Mexikoko artzapezpiku izateko proposatu zuten.

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko martxoaren 5a / 99. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Emakumeen Astea ospatuko dute datorren astean

UBANE MADERA

Datorren astelehenean martxoaren 8a dela-eta, Itur Zuri Emakume Elkarteak ospakizun egitaraua prestatu du: zinema emanaldia, hitzaldia, bideo-kafea eta bingo-afaria.

Beste urtebetetz iritsi da emakumeen eskubideak eta gizonetik berdintasuna aldarrikatzeko eguna: martxoaren 8a. Eta kale egin barik, Itur Zuri Emakume Elkartekoek bat egin dute aldarrikapen horiekin eta Emakumeen Aste-rako egitaraua prestatu dute.

### ANTZERKIA ETA HITZALDIA

Martxoaren 8an bertan (astelehena) hasiko dira ospakizunekin. Hain zuzen ere, egun horretan Las Torpedolevel antzerki-taldea ekarriko dute Aramaioara. *Ya te digo...* antzezlana egingo dute. Bi lagunek osatzen dute talde komiko hori: Madrilen bizi diren Carmen Pardo eta Vene Herrero euskal aktoreek, hain zuzen ere. Azken hori arrasatearra da. 18:30ean hasiko da antzezlana, kultura etxeko zinema aretoan.

Martitzenerako, berriz, sorginen gaineko hitzaldia antolatuko dute, Rosa Maria Agudo hizlariaren eskutik, 18:30ean, kultura



Besteak beste, bideo-emanaldia eta kafe-tertulia izango dute emakumeek.

etxean. Gasteizko Amagoia Emakume Elkarteak kidea da Rosa Maria Agudo, eta Aramaioko Itur Zuri elkarteko aspaldiko eza-guna. Askotan etorri izan da Aramaioara hitzaldiak egitera.

### BIDEO-KAFEA

Gero, egunean jarraituko dute Emakumeen Asteko ekitaldie-

kin. *El otro lado de la cama* filma emango dute zinean, 18:30ean. Eta haren ostean, kafea hartuko dute, tertulian.

Eta ospakizunekin bukatzeko, urtero moduan, barikuan, bingoa eta afaria egingo dute. Hain zuzen ere, bingoa 19:00etan hasiko da. Eskolako jangelan izango da. Eta gero, afaria egingo dute.

## Aramaioko bertsolariak Arabako txapelketan

UBANE MADERA

Abiarazi dute Arabako Bertsolari Txapelketa 2004. Aurten, inoiz baino bertsolari gehiagok parte hartuko du. Tartean, Aramaioko hiru bertsolarik jardungo dute, eta txapelketako finalerdietako bat Aramaion bertan jokatu da. Bihar, zapatua, Iker Agirreraren txanda izango da, Errioxan.

Errioxako, Aiarako, Gorbeialdeko, Lautadako eta Gasteizko bertsolariek parte hartuko dute aurtengo Arabako Bertsolari Txapelketan. Guztira, 23 bertsolarik. Eta, horien artean, hiru aramaioarrak izango dira: Iker Agirre, Andere Arriolabengoa eta Manex Agirre. Horrez gainera, txapelketako finalerdietako bat Aramaion jokatu da. Eta saio horretan, Lierni Altuna aramaioarra ibiliko da aurkezle lanak egiten.

### BIHAR, IKER AGIRREAREN TXANDA

Bihar jokatuko dute bertsolari txapelketako lehenengo kanporaketa. Eskuernagako kultura etxean, 20:00etan hasiko da bertso-saioa. Zortzi bertsolarik parte hartuko dute, tartean, Iker Agirre aramaioarrak. Gasteizko, Oreñtiako, Amurrioko, Laudioko,

Bastidako eta Gogegiko bertsolariekin lehiatu beharko du urteko bertsolari aramaioarra.

### MARTXOAREN 13AN, ANDERE

Datorren zapatuan, martxoaren 13an, berriz, Andere Arriolabengoa txanda izango da. Aurtengo erakusketa aretoan (Lautada) jokatu du kanporaketako urteko bertsolari aramaioarra. Beste zortzi bertsolarirekin batera. Hain zuzen ere, Abetxulo, Gasteizko, Amurrioko, Barakaldo, Laudioko, Ametzaga, Urbinako eta Aguraingo bertsolariek izango dituzte aurrez aurre.

### MARTXOAREN 27AN, ARAMAION

Aipatutako bi kanporaketaren ostean finalerdia izango dira. Bihar, 27an. Hala, kanporaketetatik sartzen diren bertsolariekin batera, 2003ko Arabako Txapelketako finalean ibili ziren sei bertsolariek jardungo dute. Hain zuzen ere, finalerdi horietako bat Aramaion jokatu da, martxoaren 27an, 19:00etan, kultura etxean. Lierni Altuna aramaioarra izango da keztuko du saioa.

Eta bigarren finalerdia martxoaren 3an jokatu da, Laudioko Lanbide Heziketako Udala Eskolaren (Aiara). Han, hain zuzen ere, Manex Agirrek jardungo du bertsolariekin batera.

## HERRITARREN HITZA / Manex Agirre • Ikaslea

### Gruyère gaztaren gaineko parabola

Zein da gauza, gero eta gehiago kendu, gero eta handiagoa egiten dena? Harrokeria? Ez. Dirua? Ez! Gizakia gizaki denetik gure artean dugun fenomeno geografiko-ekonomikoa da: zuloa.

Eta zein da sekulako zuloak dituen gazta puska frantses goxoa? Ba Gruyère gazta. Jan dezakezu hutsik, egin dezakezu berarekin saltsa eder bat makarroiari botatzeko, edo gure etorkizunaren parabolatzat erabili dezakezu.

Debagoieneko gure bailara maite eta ekonomikoki potentziatu hau lur irregularrez eta gorabehera ugariz osatua da. Ezin da kanpora joan portu bat

igo edo errepide bihurtu bat erabili gabe. Hemen dena da mendia, dena aldapa, eta ondorioz, dena zuloa.

Baina badirudi ez dugula horrelakorik nahi. Eta bide zuzen aldaparik gabekoak nahi ditugula. Eta Donostian, Bilbon edo Gasteizen egon nahi dugula hamabost minutuan.

Gruyère gaztabola eder bat bihurtuko da laster Debagoienan. Durango-Beasain, Urbina-Maltzaga eta AHTko bide

lustroz beterikoak korbata dute irribarretsu inauguratzen dituztenean. Eta jendea poz pozik egongo da Donostia, Bilbo eta Gasteizen ordu laurdenean, hara doazela zein mendiren azpitik, zein baserriren gainetik eta zein sororen erditik pasatzen diren tutik ere inporta ez.

zaiela. Fagorrek aurreko egunean ekoiztako pieza distiratsuekin batera hartuko dute trena (*oh dinero, poderoso*



"Bide zuzen eta aldaparik gabekoak nahi ditugula dirudi"

caballero). Imajina dezaket X jauna atzo bere eskuz atornillatutako plater-garbigailuaren ondoan eserita, AHTaren bagoi "brillante" batean, bere semea balitz bezala kristal ilunduaz bestaldeko parajeak erakusten, "momentu honetan Anbotoren azpitik goaz, uou, begira, begira estalakitak!"

Hau gertatzen zaio bailara bati Eusko Jaurlaritzak laugarren euskal hiritzat aukeratzen badu, Gasteiz, Bilbo eta Donostiarekin batera. Jainkoak atzamarrez Adani bizia ema zion bezala, agintean daudenek Gruyère gazta bihurtuko gaituzte.

## LABUR

### Zailtasunak eta apurketak eragin zituen elurrak

Joan den asteburuko elur zailtasunak eta apurketak eragin zituen Aramaion. Bertan, zapatuan argia joan zen. Tetik, mendian-eta pinuak te bota ditu elurrak. Astelehenean, zenbait langilek zailtasunak izan zituzten Aramaion iristeko. Gauza bera gertatu auzoetan bizi diren eskolako ikasleekin. Eta, esan ziguten, Ibargoian, teiltugetatik erabait elur zati handi jausi da. Ba, azpian pare bat harrapatu eta haien kristal apurtu zituzten elur zailtasunak.

## TELEFONO JAKINGARRIAK

### OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuliako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

## AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** Iaztxoa duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabilari gura badute, bezperan delitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

## OHARRAK

### BAÑERAKOEN PARTIDUAK

Eguraldi eskasaren ondorioz, bertan behera utzi zituzten joan den aste bukaerako partiduak. Hala, seguru aski martxoaren 13an jokatuko dituzte. Izan ere, hauteskundeak direla-eta, egun horretan ez zegoen inolako partidurik aurreikusita. Eta oraingo aste bukaerari begira, mutilek etxean jokatuko dute Kostalera taldearen kontra, 11:00etan. Neskek, berriz, atsedendia dute.

### BARIKUKO ZINEMA

Gaur, barikua, D. Lean zuzendariaren *Lawrence de Arabia* filma emango dute.

### DOMEKAKO ZINEMA

Domekan, Disney etxearen marrazki bizidunetako klasiko bat emango dute: *Blancanieves y los siete enanitos*. Berritutako bertsioa izango da.

### IRLANDATIK ARAMAIOA

Gaur, barikua, 23:00etan, Macrea komiko irlandarrak saioa eskainiko du Anboto tabernan. Macrea ezaguna da ETB2n egin duen lanarengatik.

# Lan ugari eta maila polita Txirritolak antolatutako ipuin lehiaketan

UBANE MADERA

**Aukeratu dituzte aurtengo Txirritola ipuin lehiaketako irabazleak: Lehenengo Hezkuntzan, 2. zikloan, Maider Aldai eta Eider Vallina; 3. zikloan, Amaia Kortabarria eta Maider Ibabe. Eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Beatriz Azurmendi eta Iraia Beitia.**

Eguraldiak ez zuen batere lagundu aurtengo Txirritola ipuin lehiaketako sari banaketan. Izan ere, antolatzailleetako batzuk eta parte-hartzaileetako batzuk ezin izan ziren auzoetatik jaitsi. Edozelan ere, ekimenaren antolatzaille Txirritola Euskara Elkarteak pozik dago lehiaketan lortutako erantzunarekin. Jakinarazitakoaren arabera, 20 ipuin aurkeztu dituzte, eta maila polita erakutsi dute lehiaketako parte-hartzaileek.



Maider Aldai, Beatriz Azurmendi eta Maider Ibabe ipuin lehiaketako sariak hartzen.

ALBERTO AZURMENDI

### IRABAZLEAK ETA IPUINAK

Hala, 20 ipuin horietatik sei aukeratu eta saritu ditu epaimahaiak. Lehenengo Hezkuntzako bigarren zikloan, Maider

Aldaik irabazi zuen, *Ametza* ipuinarekin, eta Eider Vallinak eskuratu zuen bigarren saria, *Txorria* eta *Sorgina* ipuinarekin. Hirugarren zikloan, Amaia Korta-

barriak irabazi zuen, *Kuadrilako gertaerak* ipuinarekin, eta Maider Ibabe izan zen bigarren, *Irla Sorgindua* lanarekin. Eta Derrigorrezko Bigarren Hez-

kuntzan, Beatriz Azurmendik irabazi zuen, *Jaioberriak hitz egiten du* lanarekin, eta Iraia Beitia izan zen bigarren, *Maitasunezko eskutitza* ipuinarekin.

## BOTEPRONTOAN/ Arantz Altuna · Kintelena dendakoa

*“Gazteek ikusten dute ordu asko direla, ez dagoela zubirik, opor gutxi... Ordu asko sartu behar dira”*

**A**ramaio saltoen artean, bada bat ehun urtetik gorakoa: Kintelena. Kontuak eginda, Aramaion dagoen dendarik zaharrena dela esan genezake. Arantz Altuna dendariak kontatu dizkigu halakoak. Izan ere, nahiz eta jaiotzez Iturroste baserrikoa izan, txikitatik bizi izan da Kintelenan, osaba-izebekin:

**Noiztik zuten osaba-izebek dendak hau?**

Haien gurasoak ziren ugazabak. Ehun urte inguru izango ditu. Izekoren aitak (Jose Agirianok) zabaldu zuten.

**Kintelena nondik nora dator?**  
Bazen neurri bat kintal izeneko. Gauzak pisatzeko erabiltzen zuten. Ez dakit seguru nondik nora, baina hortik dator izena.

**Zu zeu zela hasi zinen dendan?**  
Ibiltzen-ibiltzen ikasi nuen. Lehen, EGB ikasten zen, eta gero, ez kanpora irten eta ez ezer. Dendan.

**Zu bakarrik zabilta dendan?**  
Ahizpa goizez ibiltzen da eta arratsaldean. Eta gero, beharra dagoenean, alabak edo senarrak laguntzen didate. **Izan ere, dendek lotura handia eragiten dute, ezta?**  
Bai. Denda itxi eta gero ere lana dago: garbiketak...



**Denda asko aldatu da urteotan?**

Bueno. Lehen bakarrik izkinakoa zen dendak bera. Egoten ziren gauzak erakusgai. Eta barruan zegoen biltegia, eta han egoten zen dena gordeta. Izan ere, lehen, produktu bakoitzetik aukera txikiagoa egoten zen: txokolate mota bi, poteetan mermelada mota bat... Lekaleak-eta, berriz, kaxetan egoten ziren, soltean saltzen ziren. Zakueta izaten genuen guztia: azukrea... Ardoa, adibidez, barriketara ekartzen genuen eta gero, zagieta edo txanbiletan ipintzen zen edo litroka saltzen zen, botilan edo txanbiltxoan. Gauza gutxi zeuden paketeetan. **Bestelako produktuekin ere egiten zen hori?**

Likorea ere txanbiletan ekartzen zen. Eta olio bidioetan. Halako hotzekin-eta gogortu egiten zen, eta hor kanpoan, eliza ondoan

sua egiten genuen olio berotzeko. Bestela ezin genuen atera. **Lan egiteko modua aldatu zenuen, bada?**

Bai. Domeketan-eta zabaltzen genuen lehen; eta goizean goiz, gainera. Meza izaten zen 06:00etan edo 07:00etan eta ordurako zabaldua egoten zen. Baserrietatik-eta etortzen zen jendea...

**Eta bestela?**

Dena aldatu da. Orain, jendea askotan kanpora joaten da. **Orduan, zela ikusten duzu dendaren etorkizuna? Seme-alabek jarraituko dute?**  
Bada, ez dakit zer esan. Gazteek ikusten dute ordu asko direla, ez dagoela zubirik, opor gutxi daudela... Ordu asko sartu behar dira. **Edozelan ere, dendak txikitzen ematen den konfiantza ez dugu dendak handietan...**  
Ez, hori ez. Guk jende guztia ezagutzen dugu, eta norbaiti dirua falta bazaio ekarriko du hurrengoan. Lehen, batzuek, adibidez, aste gutxi zuekin pagatzen zuten. Zapatuan, gizonak kobratzen zuten, orduantxe pagatzen zuten. Koaderno baten apuntatzen genuen. Baserriko batzuek-eta, dirua beharrean, jeneroa ekartzen ziguten.

*“Lehen, dendak gizon bat erostekak egiten ikustea oso arraroa zen; orain, etortzen dira”*

*“Gozokiak baziren; txupeteak eta ‘Bazooka’ eta ‘Gallina Blanca’ txikileak, adibidez”*

## ERRETRATUZAHARRA

Zigorrolako  
mutikoak  
futbolean

**O**raingo honetan ere futbol kontuak landuko ditugu argazki zaharraren tartean. Baina, kasu honetan, futbolean jokatzeko elkartu zen lagun talde baten argazkia ekarri dugu, eta ez txapelketetan-eta ibiltzen den futbol talde batena.

Argazkiaren atzeko aldean ikusten dituzuen etxeak Sailuentekoak (San Lorentzokoak) dira, Musakolan. Gure berriemaileek kontatu diguten moduan, 1952ko abuztuaren 10ean (San Lorenzo egunean) ipini zuten etxebizitza horien lehenengo harria. On Pablo Barrena abadea sasoi hartan iritsi zen Musakola inguru hartara. Eta, kontuak atera ostean, esan digu horren arabera gure argazkia 1954koa-edo dela. Izan ere, bi urtez ibili ziren atzeko etxe horiek eraikitzen. Bestalde, argazkia aterata dagoen lekuan, errepide ondoan, etxebizitzak eraiki zituzten argazkia atera eta handik gutxira.

Lehen esandako moduan, argazkian agertzen diren mutikoak futbole-



an egiteko elkartu ziren. Mutikoetako batzuk meza-mutilak ziren; katekisan ere bazebiltzan beste batzuk. Oro har, auzokideak ziren guztiak, Zigorrolakoak. Egun hartan, On Pablo Barrenaren argazki-kamera aprobetxatu zuten argazkia egiteko. Honako hauek agertzen dira, behean, ezkerre-

tik eskumara: Jose M<sup>a</sup> Saiz, Pedro M<sup>a</sup> Arregi, Joakin Torrano, Juanito Osinaga, Joaquin Barandiaran, Jose Ramon Idigoras, Jose Luis Idigoras eta azkena akaso Barona izango dela esan digute. Eta goian, ezkerretik eskumara: Dario Tirado, Patxi Gorosabel, ezezaguna, Jose Luis

Urrutia; On Pablo Barrena, ezezaguna, ezezaguna, Francisco Altzola eta ezezaguna.

**Argazkia eta informazioa:** San Isidro elkarteko hainbat lagun.  
**Urtea:** 1954.


## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Eta, lekuak  
aldatzen ez  
badira?

**D**enak ez dauka zertan aldatu, eta aldatu behar bada, hobera izan dadila. Roberto Mendik orain dela hamalau urte atera zuen ezkerrean dagoen argazki zaharra, eta ARRASATE PRESSko 53. zenbakian argitaratu zuten; ordutik hona aldizkari honetako erredakzioare dezentziaz aldatu da. Argazkietan ikusten denez, gauza batzuek berdin segitzen dute.



≈ 1990 Gesalibarrera bidean, Garagartzara sartzeko bidegurutzeta baino metro batzuk aurrerago egindako argazkiak dira.



2004 Lekua ez da aldatu, baina urtaroa ezberdina da eta argazkietan azaltzen diren zuhaitzetako batoek argitzen dute hori.

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**TTUKUN**

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

**Taberna Berri**  
jatetxea

Durana 26  
ARETXABALETA  
Tel.943 79 20 67

**ZUBIZARRETA**  
LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

udaberri - uda  
04

ERDIKO KALEA 14 ARRASATE  
943 79 46 94



*Anna Mora*

BANDOLERA

MARC AUREI

*My time*

ALMA  
GITANA



GENFINS

MARIONA GEN

ALDO MARTIN'S

ALBA CONDE

Cadena La Maglia

TOYPES



# Martxoaren 8ko egitaraua

## **Martxoaren 6an**

Azoka (Herriko plazan)

12:00 Kale antzerkia

13:00 Bertsolariak

## **Martxoaren 8an**

19:00 Seber Altube plazan

Manifestazioa:

"Emakumeon eskubideen alde, elkartu bideak".

19:30 Luntxa

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan

## **Martxoaren 10ean**

18:00 Emakume Txokoan

Hitzaldia: "Emakumea eta inmigrazioa"

## **Martxoaren 14an**

19:30 Antzerkia "Divinas"

*Animatu eta parte hartu!!!*